



1981.eko Urtaria  
407. alea - 75 pzta.  
As reacciones de detenciones en la Universidad de Deusto

nik geratu baitze...  
mugaz bestaldera pasatzen...  
rabaki gogorrik hartu behar...  
haundirik, baina zerbait egin...  
azkar egin. Burgosko auzo...  
arrisku bizi...

As reacciones de detenciones en la Universidad de Deusto

unas escuelas, ayer se decidió en una asamblea celebrada a partir de hoy...

# anaitasun

Nota oficial

SAN SEBASTIA

Olazaguri

Asimismo

democian

generales

detenidos

1981.eko Urtaria

407. alea - 75 pzta.

As reacciones de detenciones en la Universidad de Deusto

nik geratu baitze...

mugaz bestaldera pasatzen...

rabaki gogorrik hartu behar...

haundirik, baina zerbait egin...

azkar egin. Burgosko auzo...

arrisku bizi...

As reacciones de detenciones en la Universidad de Deusto

unas escuelas, ayer se decidió en una asamblea celebrada a partir de hoy...

de detenciones de presuntos miembros de un comando de ETA (m)

Juicio a tres presuntos autónomos  
Petición fiscal de ciento veintinueve años de cárcel

Atentado contra el bar «Maite» de Lequeitio

Amorebieta: indignación popular ante presuntas torturas a los detenidos

Catorce detenidos en Azpeitia y Vidania

El Ayuntamiento de Olazagutia denuncia las «diarias detenciones en Euskadi»

Surte berri on!!

As reacciones de detenciones en la Universidad de Deusto

unas escuelas, ayer se decidió en una asamblea celebrada a partir de hoy...

As reacciones de detenciones en la Universidad de Deusto

Cuatro nuevas detenciones en Navarra  
José Luis Erdozia, puesto en libertad sin procesamiento tras más de un año en la cárcel



# Porque lo nuestro es Vizcaya

## Bizkaia geurea delako

*Coupe en nosotros*

*Zenue nortea guzan*




**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO**  
**BILBO AURREZKI KUTXA**



## ARTEDER 81

FERIA DE ARTE CONTEMPORANEO  
28 de abril-3 de mayo de 1981



### INGURUA

ARTEDER-81, Apirilaren 28tik Maiatzaren 2arte, Denborakideko Arte Azoka. Bilbon, lau milioi biztanle dituen geografi arearen muina, bearaek autoz gehien jota bi orduta egin ahal den eremuan multzoturik kokatuta daude, hots (Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Logroño, Burgos eta Santander, bakoitza bera-ri dagozkion herrialdez hornituri-rik). Herrialde honek dirutza handia erabiltzen du eta Arte eta Kultura aldetik badi-tu zenbait museo, alegia, Bilboko Museoa, San Telmo, Gasteiz eta Donostiakoa, Berreziki, Bilboko Espainian daudenetarik garrantzitsuena da, Del Padro Museoaren ondoren, bertan erakusten de-netik 60% emaitza partikula-rrak izanik.

### EDUKIA

ARTEDER-81 hurrengokooi zabaldua duzu:

- Edozein Arte Galeria (pin-tura, eskultur-gintza, fo-tografia, keramika, filmeak eta denborakideko arteari bu-ruzko grabapen magneti-koak).

- Lan grafikoko argitaraz-leak.

- Bibliofiloentzako liburuen argitarazleak.

- **Artearen Azoka Librea:**

Erakusketaren modulu tin-koak non artistek erakusker-a egiteko aukera baidute eta beraien lana indibidualki sal-tzeko. Berri on honek artista zirikatzean dauka helburua.

### EGUNBETE TEKNIKOAK

ARTEDER-81 Delakoak Nazioartean Arte Saileko jende ospetsuen laguntza dauka (artistak, kritikoak, museota-ko zuzendariak, etab.) ihar-dunaldi eta zabalkunde saile-ko egunbete teknikoak anto-latzeko.

### ANTOLAKETA

Bilboko Nazioarteko Era-kustazokak ARTEDER-81 ba-besten du, beronek baitauka moeta askotako lehieketetan antolatze-experientzia. Guz-tionek ARTEDER-81 delako-arentzat muntaia bikain bat garantizantzen du Bestalde, Azokak goizeko hamaiketatik arratsaldeko zazpiak arte ete-gabeki zabalik iraungo du. Esparru barnean jatetxe bat ere egongo da erakusle eta ikusliarren zerbitzutan.

### HERRI TALDEAK IPINTZEKO ESKATZEN DU ZURE ALDIZKARIAN LAGUNTZAILE ABISU HAU. MILA ESKER

En Bretagne comme au Pays Basque, l'Etat Français opprime les Peuples qui luttent pour leur libération nationale et leur émancipation sociale.

Les cultures Basques et Bretonnes sont bafouées et folklorisées.

La langue Bretonne et lan-gue Basque interdites dans les écoles, la radio, la télévi-sion et l'administration sont reléguées au rang de pièces de Musée pour les spécialis-tes et non pour le peuple.

Vivre et Travailler en Bre-tagne ou au Pays Basque est la revendication première des travailleurs Bretons et Bas-ques qui luttent contre le chômage l'exil la sous-indus-trialisation, la touristification et la mise à sac de nos pays.

La seule réponse de l'Etat Français aux justes revendi-cations des Peuples Travaill-eurs Bretons et Basques, c'est la REPRESSION par tous les moyens.

- Les C.R.S. qui répriment les travailleurs.

- La justice d'exception qui condamne les militants poli-tiques et syndicaux.

C'est pourquoi les HERRI TALDEAK se déclarent SO-LIDAIRES des militants Bre-tons inculpés et soutiennent les revendications des K.A.D.

### HERRI TALDEAK

### GOBERNADORE ZIBIL JAUN OHARGARRIA:

Iñigo Cesar Kastresana Pa-lacios-ek, DNI 16268869, Gasteizen sortua 63-ko urta-rrilaren 18-an, Ricardo eta Ma ia Flora aita eta ama di-tuela, ikas e dela, Castilla ka-lean 46 zenbakian 6gn. es-kuin aldean, Gasteiz-en bizi dela, Berorri errespetoz.

### ADIERAZTEN DIZU:

1-Abenduaren hil honen 20an, batera bidaltzen den isunaren fotokopiak agertzen duenez zirkulomoto batetan bi lagun zirkulatzeagatik isun bat ezarri zitzaion hau idazten duenari.

2-Egiazko arrazoi ordea, 115 zenbakia duen Gasteizko udaltzainari "arratsalde on" erantzutea izan zen, urte eta hil honen 20 garreneko "EGIN"-en, bidalitako foto-kopiak agertzen duenez, azal-du zen kontaearen arabera.

Honegatik, Berorri errespe-toz.

### ERREGUTZEN DIZU

Oraingo legetasuna eustea-rren behar diren neurriak har ditzazun eta batera demokra-tikoak ez diren gertaera hauek eta Euskal Herriaren Kulturaren, zeinaren idazten duena ohorez jabetzen baita, zapaltzaile direnak, ez daite-zen gehiago gerta.

Berorren zuzentasunaz hel-du espero duen mesedeaz za-lantzarik ez duena. Jangoi-koak opa diezazun bizitza lu-zea.

Gasteiz, 80eko abenduaren 22 ean.

Araba Gobernadore Zibil  
Jaun Ohargarria.



Lagun agurgarria:

Aurretik esana genuen be-zala, behin eta gure diskoa kaleratu ezker, hasiko gara errezitalak egiten Euskal Herriko hiri eta herri handiene-tan, "Plazarik plaza" disko berria publiko aurrean aurke-teko asmoz.

Urtarrilaren 2an, ostiralez, gaueko 10etan, Arrasateko Gurea Zinean kantatuko du-gu.

Urtarrilaren 3an, larunbatez,

gaueko 10tan ere, Donostia-ko San Telmoko Abadian.

Urtarrilaren 3an, larunbatez, gaueko 10tan ere, Donostia-ko San Telmoko Abadian.

Urtarrilaren 4an, igandez, eguerdiko 12tan, Iruñeko Ga-yarre Teatroan.

Urrengo asteetan ere lanari jarraituko diogu eta guztiaren berri zehatz bidaliko dizugu.

Agur ba, eta mila esker zure betiko laguntzagatik.



# aurkibidea

- 3.or.- Agriak
- 4.or.- Aurkibidea
- 5.or.- Artikuluburua

## 6.or.- Apal eta idazmahaietan zeuden liburua.

Durangoko Azokan stand batetik bestera iragaiten gaizu: irakaskuntzarako eta luxuzko liburuen protagonismo nabarmenak.

## 8.or.- Prentsa-Euskaraz kanpainaren datu batzu.

## 9.or.- Euskal Herriko udal eta erakundeak.

Agiri hau dela eta, udal itzultzaileak eskaturiko batzuetan jadanik martxan jartzen ari dira gure Herrietako udaletan, behintzat ahaleginak egiten horretarako.

## 10.or.- Itsutasunaren Argia.

## 14.or.- Joko Demokratikoa.

Herri honetan gehitu behar da. Nekaturik gaude beti kentzen. Soluziobidea ez zaigu etorriko mito edo historio erromatikoetatik... ez eta Gorri-Gorritz jantzitako askoetatik.

## 16.or.- Hankaz gora.

## 17.or.- Joseba Sarrionaindia'ri

## 18.or.- Kibutzak zer dira?

Israelgo lurrean Judu herriaren baldintza bere-

## GAIAK ERITZIAK GAIAK

### FERNANDO SAVATER ETA LASAITASUNA

1981. urteko azaroaren 22an, Fernando Savater eta Lasaitasuna bere liburu berriarekin aurkeztu ziren. Liburu honetan, Savaterk bere pentsamenduaren eta Lasaitasunaren arteko ezberdintasunak azaltzen ditu.

Erreklamazioa, baina gero, gero eta gehiago erabiltzen ari da. Erreklamazioa, baina gero, gero eta gehiago erabiltzen ari da. Erreklamazioa, baina gero, gero eta gehiago erabiltzen ari da.

## GAIAK LITERATURA GAIAK

### GABONETAKO AGERKUNDEA

1981. urteko azaroaren 22an, Gabonetako Agerkundera aurkeztu ziren. Liburu honetan, Gabonetako Agerkunderaren historia azaltzen da.

1981. urteko azaroaren 22an, Gabonetako Agerkundera aurkeztu ziren. Liburu honetan, Gabonetako Agerkunderaren historia azaltzen da.

1981. urteko azaroaren 22an, Gabonetako Agerkundera aurkeztu ziren. Liburu honetan, Gabonetako Agerkunderaren historia azaltzen da.

1981. urteko azaroaren 22an, Gabonetako Agerkundera aurkeztu ziren. Liburu honetan, Gabonetako Agerkunderaren historia azaltzen da.

## EUSKAL HERRIA

### EUSKAL HERRIKO UDAL ETA ERAKUNDEAK

1981. urteko azaroaren 22an, Euskal Herriko Udal eta Erakundeak aurkeztu ziren. Liburu honetan, Euskal Herriko Udal eta Erakundearen historia azaltzen da.

1981. urteko azaroaren 22an, Euskal Herriko Udal eta Erakundeak aurkeztu ziren. Liburu honetan, Euskal Herriko Udal eta Erakundearen historia azaltzen da.

1981. urteko azaroaren 22an, Euskal Herriko Udal eta Erakundeak aurkeztu ziren. Liburu honetan, Euskal Herriko Udal eta Erakundearen historia azaltzen da.

## EUSKAL HERRIA

### PRENTSA EUSKARAZ KANPAINAREN DATU BATZU

Hona hemen Euskal Prentsa-erakundearen datu batzuk. Datu hauek, prentsa-erakundearen jardueraren azalpena ematen dute.

Hona hemen Euskal Prentsa-erakundearen datu batzuk. Datu hauek, prentsa-erakundearen jardueraren azalpena ematen dute.

Hona hemen Euskal Prentsa-erakundearen datu batzuk. Datu hauek, prentsa-erakundearen jardueraren azalpena ematen dute.

ziek sortutako bizimodu kolektiboa da.

## 21.or.- Haurrak egiten du

## 22.or.- 1981 edo beldurraren kontrako burruka zorientasuna berreskuratzeko.

## 23.or.- Antzerkia, neguko lorea ere bai, zorionez.

## 26.or.- Leonard Cohen Donostian. Musika matizez beteriko kontzertu bat

## 27.or.- Soldadutza Nortasunaren ukapena.

## 28.or.- Botikak, momiak eta beste Ekialde hurbilera doan hainbeste jende halako po-mada beltz harrigarri estrainoak ekartzen ohi du sekretuki. Hango bizilagunei kasu eginez delakoak bizitza ere luzatu eta sendatuko luke. Herabe gara euskaltzain famatu hark ekarri zuena bituna merkea eta ez besterik izatea.

## 29.or.- Egun mingotsak. Historia zati bat.

## 30.or.- Ametsaren hegaldia.

## 31.or.- Gabonetako agerkundeak.

## 32.or.- Fernando Savater eta Lasaitasuna.

## 33.or.- Gramatika. Euskal azentuazioari buruzko zenbait ohar.

## 34.or.- Besteak

# anaitasuna

AZKUE BIBLIOTEKA  
EUSKALZAINDIA  
BILBO

7749

17 FEB 1981

Ale honetan lankide izan ditugu: Millan Aldana, I. Antiguada, I. Alvarez, J.A. Azkargorta, J.R. Bilbao, Biriki, J.R. Etxebarria, M. Gereka, J. Idigoras, A.M. Muxika, S. Oregi, X. Portugal, K. Santisteban, J.M. Susperregi, T. Trifol, G. Urrutikoetxea, M. Urteaga, Bilbo Zaharreko euskarazko irakasleak.

**ANAITASUNA**  
Zabalbide 68 - entlo.  
Tfnoa.: (9-4) 411 66 20 - 30.

**MOLDIZTEGIA**  
Estudios Graficos.  
Lege G.D.L. BI 1753 - 1967.  
Printed in the Basque Country.



# ARTIKULUBURUA



Aldizkariaren ale hau aspaldian gerturik zegoen, 80.ko Abenduaren hamazortzigarretik hain zuzen. Urteburuko jaiek atzeratu dute gure kaleratzea. Kasurik egin gabe, hainbeste egunetan moldiztegia lotan egon eta gero, azkenean zuen eskuetara iristen gara. Atzerapenez, beti bezala, "garrantzi handirik" ez daukan aldizkari bati dagokion bezala, besteen komenientziaz, besteen beharkizunei malkurtuta.

Honen aurrean zenbait erabaki hartu dugu, beharrezkoak zirenak, besterik ez, suposa dezakezuen inprimategikoek ez dute berriro gure irakurlegoer barre egiteko abagunerik edukiko. Garbi atera dugu hori behintzat.

Hori guziorrengatik, zuen pazientzia amaigabe horri barkatzekoak eskatzeko beharrean gaude behin eta berriro.

ANAITASUNARI dagokionez, hemendik aurrera hamabostkaria barik hilabetekaria izatea erabaki dugu. Egia esan, aldaketa honek ez du suposatzen gauza berririk, bakarrik teoriar baikinaren hamabostkaria. Hemendik aurrera bada, egiatan ginena izanen gara, hilabetekaria.

Erabaki hau hartzeko arrazoi nagusia ekonomikoa izan da, ez dugu atzean arazo ekonomikoak konpontzen dituen ezein erakundek eta etxe honetakook ezin ditzakegu galera hauek jasan.

Hala ere, 81.urte honetan zehar prentsa artean eta bereziki "euskal prentsa artean" gure jarrera eta lekua finkatzea espero dugu, ANAITASUNAKO orrialdeak deneri, Euskal Herriaren arazo eta gorabehereri bereziki, irekirik edukiz.

Eta Euskal Herriari dagokionez, 81.urte honetan oso gauza gutti aldatu denez, berriro ere, burrukarako beste urte berri bat izanen dela jadanik ba dakigu eta ba dakizue.



## APAL ETA IR ZEUDEN

Abendu honetako 6,7 eta 8an ospatu zen Durangon Euskal Liburu eta Diska azoka. XV.edizio honetan argitaletxeek hartu ahal izan dute parte, zabaltzaile pare batekin batera: ihaz liburudendak eta zabaltzaileak guztiz jabetu ziren azokaz; hau zela eta, antolatzaileek kritika zorrotzak jaso zituzten azokaren bokazioa argi azaltzeko eskatuz eta lehengo bidera itzuli dira.

Larunbatez ireki zen, hilaren seian, baina sarrera biharamunean ukan zuen, Antonio Tovar jaunaren hitzaldi batez; interes eta gatzik ukan zuen beronek, jende gutxi hurreratu bagintzaizkion ere.

Beste hiru solasaldi itsatsi zitzaizkion Azokari: "Euskarazko literaturaren krisia" eta "Hizkuntzen birreskuratzea"ri buruzko mahai biribil bi eta datorren urteko UEU prestatzeko batzarra.

Joxe Azurmendi krisiaren kontzeptu berarekin bat ez bazetorren ere, hantxe hasi ziren bera, Koldo Izagirre eta Josu Landa, Andu Lertxundi moderatzaile zelarik. Krisiaren ideia hau erratua dateke, gaur egun inoiz baino gehiago ekoizten da eta. Hala ere, nolabaiteko ezinegona hedatu da. Joxe Azurmendik publikoarekiko harremanak hoztu direla esan zuen. Lehen Harri eta Herri argitaratzea gertakari bat zen. Gaur Estatutua. Koldok "entusiasmoa falta dela" zioen: literaturari ez zaio kasurik egiten.

Gazteen protagonismoaren gaia eztabaidatu zen. Josu Landa absurdoaren zentzazioaz mintzatu zen: hemeretzi urte eta jadanik idazle kontsokratua. Idazlearen prestakuntzaren beharra eta honekin batera aspalditik datorren problema: profesionaltasuna. Dena dela, Joxek impassean aurkitzen ditu gazteak. Datozen urteetan lehortuko da krisia, irtenbiderik topatzen ez ba zaie.

Euskara Batua eta literatur hizkuntzaren kontrastea aztertu zuten ondoren. Koldorentzat hizkuntza hotz eta normalizatu horrek Elhuyarrekoentzat balio du; baina euskaraz nola esan "matar dos pájaros de un tiro"? Hala ere, bi moduen arteko gatazka ez dago garbi. Azkenez, bat zetozen denak Euskara Batuak suposatu duen zerbitzuaz.

Biharamunean "Hizkuntzen birreskuratzea"ri buruzko mintzaldiak izan ziren. Munduko zenbait kasu azaldu zituzten Txillardegik (Irlanda), Xabier Kintanak (Georgia), M<sup>a</sup> José Azurmendik (Canada) eta González Txabarrik (Israel) beronek moderatzaile bezala jokatu zuelarik.

Hauts gehien harrotu zuena Txillardegi izan zen Irlandako kasua goitik behera miatuz eta bera izan zen Amatiño interrogatu zuena, Euskal Gobernuaren berri eskatuz.

Honek parlamentuko oposizioaren jokoa aipatu zuen: datorren Martxoaren hirua baino lehen euskarari buruzko Oinarrizko Lege bat eskatu dio gobernuari. Amatiñok gobernuaren zenbait proiektu aitatu zuen, euskara eta komunikabideen arteko harreman negargarriak etab. Dena dela, euskal gobernuak ezin dezake inolako hitzik eman, politika guztia akordio Ekonomikoek baldintzapezten dute eta: euskaldun berri bat sortzeak dirutza ikaragarria kostatzen da: 80.000 pezeta.

### DEKADA BATETAKO LOREA

Durangoko Azokan stand batetik bestera iragatean gauza batek harritu gaitu: irakaskuntzarako eta luxozko liburuen protagonismo nabarmenak. Sakelezko euskal bildumetan ez da liburu kopuru handirik atara; Gero, Kriselu eta beste argitaletxeek liburu gutxi kaleratu dituzte. Hor ikusi ditugu "Historia General de la Guerra Civil en Euskadi", "Geografía de Euskal Herria" eta gisako obrak, haur eta gaztetxoentzat liburu pila, ezin konta ahalezko metodoak, eta abar. Zer dela-ta?

Joan Mari Torrealdyrentzat merkatuaren jokoaren ondorio da. Orain zazpi edo hamar urte, editorial berriak plazaratu zirenean ideologia berria finkatzen zihoan. Honek debate giro bat sortu eta zabaldu zuen, eta agertzen ziren obra asko unibertsitateetako tesi liburuak ziren. Ekoizpen hau 1600-1700 aletakoa zen eta harpideek mantentzen zuten gehien bat.

Denboraren poderioz ordea egoera hau aldatuz joan da. Salmenta honek ezin

manten zitzakeen argitaletxeak eta profesionaltzeko garaia heldu zen. Eta profesionaltze honek bi irtenbide ditu: erdarazko liburugintza ta irakaskuntzaren inguruan dabilena.

Durangoko Azoka honetan erdarazko liburuen artean gehienak enziklopedikoak eta luxozkoak dira, liburu-objetu bezala defini ditzakegunak. Nork eros ditzazke holako liburuak pairatzen dugun krisi gorri honetan?

Gisa horretako liburuak argitaratzen ez dituen editore baten eritzia jasotzen dugu: "Krisia sofritzen poltsikoak ez dira 20.000 pezetakoak, 40.000 koak baizik". Luxozko liburuen editoreek, haina ozenkin ez badiote ere, hala ezagutzen dute. Eta beste faktore bat aipatzen digute: saltzaileena. Sareak ondo antolaturik dituzte. "La Gran Enciclopedia Vasca"ko "La Gran Enciclopedia del país vasco" k gainezka dira; esaterako, "Historia General de la Guerra Civil en Euskadi". Salmentatik atera ditzaketan komisioak dira saltzaileen oldarkotasuna eragilen dutenak.

Oro har, euskarazko liburuak erdarazkoen bizkarretik bizi dira; hor ditugu Elkar, Hordago eta besteren kasoak. Hain zuzen, Hordagokoek esaten zigitenez, liburu politikoen uzkinen esker atera izan dituzte euskarazkoak.

Azoka honetako beste pertsonaia, irakaskuntzaren inguruko liburua da. Metodoak etengabe ateratzen dira eta baziren Durangon berriak. Sail honetako beste liburu mota osagarriak dira. Euskalduntzen eta beste metodoekin batera doazenek sekulako arrakasta izan dute. Honela zioten Hordagokoek, "jendeak ez gaitu sinesten, baina Karraspioren abenturak 20.000 ale saldu dira eta beste batzu. 10.000 inguru. Telefonoz hots egin eta guzti egin digute, euskaraz zer edo zer irakurtzeko gauza direla eta eskerrak emanaz".

Elkar-ekoek landu duten saila gaztetxoentzako liburuen da. Hain zuzen politika honekin irakurleen kopurua handitzea espero dute: gazteak erdaraz irakurtzen ohitzen dira materiale faltagatik, eta ez dira euska-



# AZMAHAJETAN LIBURUAK

raz irakurtzen hasten. Haro honetan titulu pila bat eskaintzen badiegu, izango dute beren egarri non hase. Horrela, irakurle potentzialetatik ahalik eta gehien aprobetxatu behar da. "Gazteak tituluez bonbardeatu behar ditugu", zioten Elkarrekoak.


Joan Mari Torrealdyrentzat, egoera hau gutiengo hizkuntza guzietan gertatzen da: irakaskuntza eta literatur liburuak dute lehentasuna. Honela behatzen du literatura gaztearen egoera. Lehenengoz, idazleek beren burua literatu bezala defitzen dute soilik. Bigarrenengoz, narratibak du nagusitasuna. Narratiba honetan hizkuntzaren berriztapen bat ikusten da, batuaren pisua arintzen duena. Halabaina, berriztapen hok literatur balioen pobrezia estaltzeko balio dezake. Bestetik, literato gazteok ez dute obra nagusirik idatzi. Narrazio txikiek sail bat osatzen dute, eta bertan askotan hizkuntza experimentatzen dabilta.

Geroari buruz, argialetxe guztiak behin eta berriz itaundu baditugu ere, bakar batek ere ez digu inolako plangintzarik azaldu.

## KANPOTARREN HILPO SAKONA

Hala esaten zigun Karlos Arko-k: multinazioanalek, erraz, Euskal Herriko merkatuaren %90 dute. Beren politika komertziala benetan oldarkoia: "Lo arrasan todo, lo compran todo, hasta escaparaten de los comercios; y aquí no se ha olido esto".

Euskal Herriko diskagintzaren hurbilduz gero, behin eta berriz azaltzen zaigu profesionaltasunaren arazoa. Kantariengandik hasita. Beren lana ez da inongo bazterretan estimatzen. Ehundaka festiba antolatzen ziren Euskal Herrian; huraxe zen profesionaltzeko okasioa. Baina jendeak uko egin zien: ezin pentsa zezaketen euskal kantari batek sosik kobra zezakeenik. Hala ere, Karlos Arko-k gauza bitxi hat kondatzen zigun: «Orain dela gutxi festibal bat antolatzen lagun niezaien eskatu zidaten. Euskal kantariak gratis nahi zituzten, baina ez zuten Lluís Llach kontratatzeke eragozpenik, takillaren %75 eskatzen duela jakinda ere".



Gazteak erdaraz irakurtzen ohitzen dira materiale faltagatik, eta ez dira euskaraz irakurtzen hasten. Haro honetan titulu pila bat eskaintzen badiegu, izango dute beren egarri non hase. Horrela, irakurle potentzialetatik ahalik eta gehien aprobetxatu behar da. "Gazteak tituluez bonbardeatu behar ditugu", zioten Elkarrekoak.

Multinazionalen kompetenziari aurre emateko irtenbide bera dago: enpresa bezala planteiatu diskaetxeak. Boluntarismoa haizeak darama eta badira estudio propio bat duten diskaetxeak, grabaketan Madrillen edo Bartzelonan ibili gabe.

Hala baina, gastu asko dakartzat birregituraketa honek, eta urte luze juxtu juxtuaren ibiliko dira enpresa hauk.

Komunikabideak dira industria honen bigarren oina, eta egoera ez da oso lasaigarria. Bilbon SER eta Herri Irratiak la-

Durungoko Azoka honetan erdarazko liburu artean gehienak enziklopedikoak eta luxozkoak dira, liburu-objetu bezala defini ditzakegunak. Nork eros ditzazke holako liburuak pairatzen dugun krisi gorri honetan?

guntzen dute, Karlos Arko eta Félix Linares edasleen borondate pertsonalagatik, baina Donostian txarto dago kontua: Radio San Sebastianen jendearen presioari esker hasi dira euskal musika barreiatzen.

Dena dela, Karlos Arko-k itxaropen apur batez ikusten du etorkizuna. Kantarien artean belaunaldiz aldatzen ari dira eta gazteenak besteen burua zentzatu dira, eta planteiamendu berriekekin datoz. Musika mota guztiak landuko dira, baina batez ere bi: kaletarra eta folk mailakoa. Hala bedi.

Mikel Gereka

"Lo arrasan todo, lo compran todo, hasta escaparates de los comercios; y aquí no se ha olido esto".



Hona hemen Euskal Prentsa-  
ren aldeko herri-eskaera eta  
kanpainaren datu batzu. Datu  
hauek, azpimarratzekoa da,  
behin behinekoak dira orain-  
dik, hala ere, herri-eskaerari  
dagozkionak, salbuespen ba-  
tzu kenduta, behin betikotzat  
kontsidera daitezke.

## PRENTSA EUSKARAZ KANPAINAREN DATU BATZU

### BIZKAIA

BILBO ERDIA  
GUZTIRA  
381.309,50

### BILBOKO HAUZOAK

Altamira..... 9.184  
Basurto..... 29.234,50  
Deusto..... 24.972,50  
Errekaldeberria..... 33.350  
La Peña (Abuso)..... 15.545  
Parte Zaharra..... 72.948  
San Inazio..... 20.533,50  
Santutxu..... 251.402  
Uribarri..... 13.150  
Zabalburu..... 18.512  
Zorrotza..... 39.031  
GUZTIRA..... 527.762,50

BILBO OSOA..... 909.072

Abadiño..... (ez dago daturik)

Arratialdea..... (ez dago daturik)

Bakio..... 5.963

Barakaldo..... 20.450

Basauri-Arrigorriaga... (ez dago daturik)

Busturialdea..... 9.519

Bermeo..... 53.588

Durango..... (ez dago daturik)

Ea-Elantxobe-  
Ibarrangelua..... 10.966

Erandio..... 12.764

Etxebarri..... 10.456

Leioa (Unibertsitatea).. 8.275

Leioa (Herria)..... 36.441,50

Gaminiz..... 30.500

Gernika..... 24.100

Getxo..... 70.455

Lekeitio..... 20.994

Markina..... 13.826

Ondarroa..... 53.080

Portugalete..... 121.228

Santurtzi..... 90.960

Sopela-Urdulitz..... 24.052

Ugao..... 8.900

Bilboko Erakuztazokan. 29.400

GUZTIRA..... 673.853,50

BIZKAIA GUZTIRA... 1.582.925,50

### GIPUZKOA

DONOSTIA  
GUZTIRA  
100.725

Arrasatealdea..... 115.000

Bergaraldea..... 75.810

Debaldea..... 24.173

Errenteria..... 15.660

Hondarribia-Irun (Bida-  
soaldea)..... 68.925

Legazpia..... 21.300

Goi-Herriko eskualdea.. 134.238

Pasaia, Pasaia Donibane 41.070

Pasaia Antxio..... 18.720

Orio..... 17.233

Zestoa..... 12.345

Zumarraga..... 24.164

GIPUZKOA GUZTIRA.. 669.363

### NAFARROA

Iruñealdeko eskualde  
osoa..... 117.681

Nafarroa GUZTIRA... 117.681

### ARABA

Gasteiz..... 150.824

Laudio..... 25.935

ARABA GUZTIRA..... 176.759

HEGO EUSKAL

HERRIA, GUZTIRA... 2.546.728

Asociación Vendedores  
prensa de Bilbao..... 8.961  
Donostiako Gau Eskolak 5.125  
Gipuzkoa Bankuko Lan-  
gileak..... 6.061  
Donosti Aurrezki Kutxa-  
ko Langileak..... 2.550  
Corte Inglés..... 25.000  
Zaldibiako Udalbatza... 15.000  
Gipuzkoako Foru Dipu-  
tazioa..... 500.000  
Manu Reguero..... 500  
Bar Bolivar..... 1.000  
Barakaldoko Liburuden-  
da bat..... 5.000  
Bilboko Gau Eskolak... 18.294  
Bilbo Aurrezki Kutxako  
langileak..... 29.051  
Anoetako udalbatza... 2.000  
GUZTIRA..... 616.542

Herri Eskaera-laguntzak 3.163.270  
Gastuak (behin behine-  
koak)..... 786.998



## EUSKAL HERRIKO UDAL ETA ERAKUNDEEI

Euskararen ofizialkidetasuna legez onartu ondoren, berori bideratzen hasteko, itzultzaileak kontratatzeari ekin zaio. Itzultzaileen eginkizuna, zenbait idazki euskaratzea besterik ez da oraingoz eta sarritan euskaratze-lan horiek jendearengana gutxien hel daitezkeen paperak izaten dira. Bestalde, itzultzailearen lanpostua bera eranskin bat besterik ez da leku askotan eta honek beronek ematen dio euskarari morrontzarik lotsagarrienaren finkapena.

Ofizialkidetasunak, erabilera ofizial berdina esan nahi du. Eta gauetik goizera lortu ezin bada ere, eman behar diren urratsek, sendoak eta ondorio ugariak ekarriko dituztenak izan beharko dute. Hori lortzeko bide nagusia, ahalik eta jende gehienarengana heldu behar duen guztia euskaraz adieraztea da. Hau noski, ez dezakete itzultzaileek bakarrik lor.

Litekeena da halere, norbaitzu oso prest jartzea euskaraz adierazte honetan, baina hedakuntza osorik lortzen ez bada Euskal Herri osoan zehar, zenbaitzuren ekintza soil mailan gora daiteke beste gabe. Beraz, alor honi dagokionez, erabaki politiko irmoak hartu eta bete erazi beharko dira.

Hauek honela, hiru mailatako erabakiak hartu eta bete beharra ikusten dugu lan honen abiatu garenok:

1) Euskaraz adierazi beharreko gaien artean lehentasuna zeintzuk duten zehaztu eta erabakitzea.

2) Euskararen erabilpena gauzatzeko behar diren pertsonak izendatu eta lanean jartzea.

3) Erabaki politikoak hartu eta bete eraztea, erabilpena egia bihur dadin.

### I.- EUSKARAZ ADIERAZI BEHARREKO GAIEN ARTEAN LEHENTASUNA ZEINTZUK DUTEN ZEHAZTU ETA ERABAKITZEA.

Itzultzaileok dugun esperientzian oinarriturik eta ahalik eta jende gehienarengana heltzea helburutzat harturik, lehentasun-ordena hau jartzen dugu:

1) Kaleratu behar diren ohar, dei, bando, zigilu, inpreso, notifikazio eta berriemateak euskaratzea. Eta hauekin batera eta maila berean Udal-bulegariak eta Udaltzainak

nahiz beste Erakundeetako bulegari eta zaintzaileak euskalduntzea, jendearekiko harreman zuzenak eta ugariak dituztenez. Hemen bereziki aipatu nahi genuke bulegari euskaldunen alfabetatzea, makina-lanak eta gainontzekoak ere euskaraz egiteko gai izan daitezkeen. Itzultzaile deituok bakarrik ez dugu Administrazioa sekulan euskaldunduko. Gainera, alfabetatzea ez da klase batzuerkin bukatzen, eguneroko labideak alfabetatzen baitu benetan.

Klaseak emate hori, itzultzaile nahiz Euskal Eskoletako irakasleen bidez, edo eta bien bitartez egin daitekeela deritzogu.

2) Ondoren eta denbora, pertsona eta abarren baitan, aktak, mozioak, diktamenak, txostenak, batzordeetako idazkiak eta beste guztiak letozke, hau da, kontzejalen, teknikoan eta beste erakundeetako exkutiveoen barne-funtzionamenduko gaiak eta paperak, baina jendaurrera agertu behar dutenak (Batzarra eta bileretara).

3) Aurreko guztia lortu eta gero, bulego-etako papertza guztiaren euskaratzea letorke. Baina hori lortzeko alfabetatze teknikoan bidez prestatutako bulegariak beharko dira, eta une horretatik aurrera hizkuntza-arduradun edo gisako zerbait besterik ez lirateke izango gaurko itzultzaileak.

### II.- EUSKARAREN ERABILPENA GAUZATZECO BEHAR DIREN PERTSONAK IZENDATU ETA LANEAN JARTZEA.

Nolabait hasiera emateko, itzultzaileak hartzen doaz Udalak eta beste erakundeak (Diputazio, Gobernu, etab). Itzultzailea, bide-urratzaile garrantzitsua dateke, baina jarraipena behar du luzarora gabe bere inguruan. Alor honetan eman beharreko urratsak hauek lirateke:

1) Itzultzaile edo hobeki Euskara-arduradunak kontratatu, itzulpen eta paper-lanak egiten nahiz klaseak emanez zerbait aurreratzen hasteko. Langile hauek ordea, zeharo profesionalizatu egin behar dute, behin horretarako gaitasuna agertuz gero. Horretarako, hauentzako postu ofizialak sortu behar dira. Beraz, alde horretatik Erakunde bakoitzak beharrezko zaizkion guztiak kontratuta beharko ditu benetako

lanik egitekotan. Eta Erakundea (Udala edo delakoa) oso ttikia balitz eta lan guttiagi izango balu, bi, hiru edo laurentzako Euskara-arduradun bat kontrata dezatela, baina beti ere ofiziaki (Idazkariak eta besteak bezela) eta behar bezala lan egitekotan, ez etxean etab. ezkutuko orduak sartuz.

2) Bulegari eta Udaltzain nahiz beste Zaingoetako euskaldunak alfabetatu eta euskararen erabilpenean (mekanografia, instantzi-betetze, txostengintza, etab) trebatzen abia erazi, itzultzailearen hizkuntza-gidaritzapean administrazioa euskalduntzen has dadin.

Ondorengo epe batetan bulegari etab. euskaldunberriak prozesu berean sartuz joan.

### III.- ERABAKI POLITIKOAK HARTU ETA BETE ERAZTEA ERABILPENA EGIA BIHUR DADIN.

Lehen bidenabar aipatu den bezala, lan guzti hau eremu mugatuan bakarrik egiten bada, indargabea da eta ofizialtasunik gabekoa. Ofizialtasunak hain zuzen ere edozein lekutarako erabilgarritasuna adierazten du berori deklaritzen den eremuan. Euskal Herriaren barnean ez dago. 1. mailako eta 2. mailako euskal eremurik jartzetik Erakunde mailan, nonahi euskaldunberriak sortzen ari diren garaian.

Beraz, erabilpen orokor, hedatu eta zabalazatekotan eta besterik ere izan daitezkeen arren, Euskara erabil eraztera behartuko duten erabaki politikoak behar ditugu eta erabaki horietako garrantzitsuenetakoa honoko hau dateke:

DAGOENOKOZ ZENBAIT UDALEK ERABAKIRIK DUEN BEZALA, EUSKAL HERRIKO ERAKUNDEETATIK EUSKARAZ IDATZI GABE HARTZEN DEN ESKUTITZ, TXOSTEN EDO IDAZKIAK EZ ONARTZEA ETA DATOZEN ERAN ITZULTZEA.

Behar-beharrezkoa ikusten da nuerri hau praktikatzea, baldin eta Euskara hinkuntza ofizialkidea bada. Hori gabe ez dago ofizialkidetzarik eta jadanik dugun legerik ere ez litzateke beteko.



## ITSUTASUNAREN ARGIA

Aurton, beste askotan bezalaxe, Olenzaroa heldu zaigu mundu osoan milaka lagun preso dauzkagula. Bertso hauk prestatzerakoan, Ulster-ko Sean McKenna izan dut gogoan, berau baita, seguru dakizuenez, itsua geratzeko arrisku bizian zegoena, Maze izeneko kartzela horretan gose grebari heldu ziotenen artean. Eta Alfonso Sastrenen nobela baten eskale dioenez: "Kartzelak egiteko behar diren adrilu horiekin guretzako etxe pila bat egiteko modua zegoen".

Soinua: X. Amurizaren "gizona ez da ogiz bakarrik bizi".

Irlandako kartzeletan preso asko ba dira kaleratu egin baita pobre guztien i.r.a. hitz egoki ta ederrez inor ere ez da fida hola heltzen dira aurton gabonak hango herrira segi burrukan bakoitzak berak daukan neurria hobe biziko ginake besteak ez balira!

Justiziarik ez dago baldin ez banago oker adar okerrekin dabil edonon zenbait aker libertatea erosteko zenbat dilista-plater? baina ezetz dinogu ta nahiago dugu leher



ez lider ez luzifer ta ez ere paternoster honetaz oroitu bedi Londresko Mistress Thatcher!

Herrera, Soria, Fresnes, Sttugart eta Maze gizarte hontan kartzela ez al daukagu base? herriak utzia dauka hor barruan oinaze presoen minez besteak ederto dira ase hauentzat kartzelak dira eztiaren orraze baten bat alde balego sar dadila huraxe!

Preso han ta preso hemen preso bazterrik bazter kalean eskuin libre ta barruan preso ezker eta hori gertatzen da ganster gutxiri esker nagusi daukagu orain hainbat Don eta Mister kartzelak atea zabalduko atea ta bizi egingo gara Euskal Herri ta Ulster!

Batzuk ez dute ikusten aurrean daukatena pozik abiatzen dira gizartean barrena oso pobre dute hoiek barruko ikusmena baina zuk begian erne daduzkazu McKenna eta itsu nahi zaituzte ez ikusteko dena Irlandak ba du zurengan argirik argiena

Ulsterrek ez du nahi izan Inglaterraren otsein beronek hango kaleetan gorrotoa baitu erein askatasun ametsekin da pobre den edozein gizon andre neska mutil atso agure ta sein hurrengo urtean ere gogorki burruka ein eta opa nahi dizuet kanpaina ona Sinn Fein!

## KAKA EGITEN DUTE, BAI!

Gizarte honetan miaka eta miaka gauza barregarri gertatzen direla gauza jakina da; baita ere denon jakina dateke barregarritzko gauzez gainera ba direna ere serioak, seriotasuna eskatzen dutenak.

Espainia sakratuaren gobernuko lehendakari izatea gauza ezin serioa da, esaterako; edo Espainia berberaren errege izatea edo... Bai, pertsona horiek ba dute sama handia bizkar gainean. Beharrik gizonko berberoriek ordezkariak indarrez menperaturiko eremuetan dituztela, bestela ez luke a huntzaren gauerdiko eztula entzunen, ez. Euskal Herria ba dabilta ibili Marzelino Belarria supergobernadore eta supergobernadorearen peko gobernadoreak (gobernadoretxuak falta dira hirokotea osatzeko). Oraitu arte Donamari generala izan dugu ere. Zerbitzari leialak denak, alajainkoa!

Irratian ez da irudirik ikusten, ahotsaren egoera susma daiteke bakarrik. Telebistari aldiz, "gobernatzeko" gaituztenak ikus gaituzte. Nolatan ikusi? Jakina, beti serio, ikaragaitz, hutsik gabe. Baina batek pentsatzen du erregeak (gurea —euskaldunona— izango balitz "erregek" esan beharko, gramatikek diotenez...) bere uniforme diztiratsiak eta Suarezek bere smoking inpekableak erantzi beharko dituztela noizean behin. Eta zer esan Donamari generalaren biboteaz, erantzibeharko du noiz edo noiz. Batek pentsatzen du hori. Batek eta bik. Eta anintzek agian.

Lotarako orduan zelan egingo dute berorik? Hor ba liteke jantzirik egotea ere eta biharamunean lisakina pasa. Seriotasunaren arazoa da. Problematua. Hor nik ez dut oztoporik ikusten Sofia erregina erregearen brageta bizpahiru aldiz urtero irekitzen-ixten antzemateko. Edo Suarezena edo besterena. Bapatetako da hori. OSTERA, transzendentatagoa gertatzen da kaka egitea. Prakak jaitsi beharra baitago ezinbestez. Hortxe bai, seriotasuna gaitzen dute gobernariak.

Suarezek arestian Euskal Herria egon zenean ba omen zekarren ekarri kakapirria. Ajuria-Enea-ra joan zen eta han berarentzako komunik ez! Denak okupaturik zauden, Gobernu Baskongadokoak prakak jaitsita han zeudela-ta. Suarezek, ezin jasanez, prakak aldatu behar, seriotasuna galdu zuten baina.

Nik ba dakit Casadearraiba lehendakariak, Arzallusek, Castañaresek eta bestek kaka egiten dutena ere; prakak jaisten dituztela. Ez dirateke diruditen bezain serioak... kaka egiten dute, bai.





## Etxerako Kontua. Etxekoen beharrak ere kontutan eukitzeko.



"La amabilidad  
se demuestra con  
hechos."

Por fin, la cuenta que la familia estaba esperando.

Se llama Cuenta Hogar del Banco Guipuzcoano.

Una cuenta corriente de ventajas nada corrientes para todos los que cobren su sueldo a través del Banco Guipuzcoano.

Hasta hoy, el interés de la mayoría de las cuentas se limitaba a los intereses.

Pero los problemas económicos de la familia hace tiempo

que no se reducen a meter y sacar dinero en el banco.

Y no es corriente que una cuenta se preocupe por otras cosas tal vez más importantes.

Como la seguridad de la familia. La tranquilidad de tener las espaldas siempre cubiertas. La comodidad, orden y claridad en las cuentas.

Por eso la Cuenta Hogar.

Una cuenta que tiene en cuenta el lado humano de las necesidades familiares, que comprende los mil y un problemas cotidianos de la vida familiar. Y nunca le deja en la estacada.

Una cuenta que multiplica las posibilidades del dinero familiar. Que sus sudores le cuesta ganarlo.

Una cuenta fácil, tan clara como dos y dos son cuatro.

Una cuenta con la que no le ponen verde cada vez que se queda en números rojos, sino que le echa una mano. Que el dinero es suyo, y tiene derecho a exigir como mínimo una confianza del banco donde lo deposita.

### Atera Kontuak, gure abantailak Kontutan hartzeko.

La Cuenta Hogar del Banco Guipuzcoano le permite disponer de un descubierto de hasta 50.000 pts. Para que cuando se quede en números rojos no lo vea todo negro.


Un **talónario de cheques de compra garantizados**, para que usted y su familia puedan comprar lo que sea sin llevar una peseta encima.

Aunque en ese momento no tenga saldo suficiente en su cuenta.

**Créditos sin avales.** Para comprarse un lavavajillas o hacer un viaje. Hasta 300.000 pts., así por las buenas. Sólo por ser usted y creer en el Banco Guipuzcoano.

Y un largo etcétera de ventajas absolutamente fuera de lo corriente.

Venga al Guipuzcoano y no le ahorraremos detalles.



### Zure ordainbidearen froga.

¿Ve esta tarjeta? Será la prueba material de que usted y su familia son titulares de la Cuenta Hogar del Banco Guipuzcoano. Con todo lo que ello significa.

Significa que su solvencia está fuera de toda duda.

Significa que usted y su familia tienen poder para exigir del Banco Guipuzcoano todos los servicios y ventajas a que les da derecho su Cuenta Hogar. Significa, en definitiva, que el Banco Guipuzcoano le respalda.

Abra hoy mismo su Cuenta Hogar.

### Etxekoak Kontutan hartzeko.



ETXERAKO KONTUA



Banco Guipuzcoano



# SALSA

Salsa modan omen da. Harritzekoa ote da?

Tipi nintzanetik, hau da ohartzen hasi nintzanetik orain arte, halako musikak "modan" egon izan ohi dira Hego honetan.

Ba da honetan gauza bitxi bat.

Ezin uka horrelako musikak ba dutela gatza, baina, zergatik ez dira inglesak edo modan egoten 40 urtez?

Ez noa salsa kritikatzera; Hego Ameriketako kantak ere ez. Baina, "rantsxerak" oraindik modan dira. Zergatik?

Francoren denboran, orain bezala, Venezuela-Colombiako kantak, Andaluziako "cante flamenco" etabarrekinean batean entzuten genituen, ito beharrez sartzen zizkiguten, zergatik?

Honetaz ohartzeko nahikoa duzue igandero Nafarroako "Malloas"etara edo Zarautzko dantza leku batera joatea. Orain ere!

Guzti hauek badute puntu komun bat: espaineraz eginak direla, kasualitatea ote da?

Gogoratzen naiz, orain 10-enbat urte, abertzale burrukalari batzuk "rantsxerak" kantatzen jartzen zuten arreta. Euskaraz bazekiten, baina ez ziren mintzatzeko, Ni harrituta egoten nintzen haiek entzunaz. Nerekiko, ba zen han zerbait zuzen ez zena.

Kantu horien edertasunean al da gakoa?

Fazistek edertasunagatik irentsiarazten ote zizkiguten? Edertasunaren zentzurik ba ote zuten?

Ez. Beraz, zergatik hauen propaganda eginen zuten?

Inperioko hizkuntzan emanak zirelako, inperioa zabaltzen, mantentzen eta gogorazten zutelako baizik. Eta Hego Euskadi espainoltzen zutelako.

Egin-ek Urrileko 25-ean badakar salsari buruzko artilu bat eta besteak beste horrela dio: "Se trata de la nueva moda, tras la que se esconden los más poderosos intereses económicos (y políticos)". Azken hau nik erantzia da.

Bistan da, politikazko helburu bat duela honek, ez bakarrik edo batez ere egiten dutenen aldetik, baizik eta marxan jartzen dituztenetik.

Zer da bada moda? Moda inposatzen den gauza bat da, tresna bat da, interesatua da.

Nik uste Hego Euskadin, Lola Flores, Manolo Escobar, Carmen Sevilla, etabar, etabar, ez direla sekulan modan egon. Bizkitartean, zerbait entzunak ditugu... indatzeraino.

Esan behar dut, nik ez dudala ezer Andaluziaren aurka, ez eta ere beurrak hainbeste maite dituzten kantuek. Adiskide minak ba ditut Andaluzian. Hauen bihotza manipulatu izan da Hego Euskadi espainoltzeko, gure nortasuna galtzeko.

Gaur salsa modan jartzea, kasualitatezkoa ote da?

Mikel Urteaga

# EUSKAL HERRIA

## Europako Elkartearen Batzordea Euskal Merkatal ganbara oinezkoentzako gezurretxape bat

Azken sei urte hauetan lanik gabekoen kepurua hiru aldiz gehiago igo da Frantziako Estatuan, 500.000tik 1.500.000etara hain zuzen. Britainia Handian sekula eman ez den lagabezia ere jasaten ari dira.

Europako Elkarte Ekonomikoaren burua, Alemaniako Errepublika Federatua, bihurtu batetan ere aurkizten da; azken Urrian langabezia 900.000 izatera iritsi dira, langileetako 3.8. Espainia aldean utzirik, langabeziaren lasterketa honetan Belgikak irabazten du lehen toki. Langileetako 8,5 lanik gabe aurkitzen baita.

Europako Elkarte langabezia kronikoa bada ere, handiegia ez dela kontsidera daiteke, hurbiltzen zitzaizkigun urteetako pentsatzen badugu. Aurriskuteen arauera, hemendik lau urtetara, hau da, 1985.ean langabezia hiru aldiz gehiago handituko da eta Europako Elkarte Ekonomikoan (Grezia, Portugal, Espainia gaberik) 11-15 milioi pertsona egonen da lanik gabe.

### Batzordearen aurrikusteak

Aurrikuste pesimista hauek bultzatuta Europako Elkarteak Veneziako biltzarrean langabeziaren fenomenoaz eztabaidatzeko eta berari ahalbide eta soluziobideak prestatzeko batzorde bat izendatu zuen.

Iragan den Abenduan bildu da lehen aldiz batzordea. Batzordekoentzat langabezialdia ez da oso iraunkorra izango; haien ustez 1985tik aurrera hasiko da jeisten.

Batzordearen ustez, jarialdi zikliko hauek zenbait faktore demografikok sortu zituen hirurogeietan... jaiekuntza gehiegi egon emen zela argundiatzen dute Bruselako Batzordekoek.

Puntu honi buruz ez dakigu serio ari diren ala benetan adarrak jotzen ari zaizkigun baina behintzat hori berori izan zen prentsaurrean eman zuten explikazio bakarra.

Bitartean eta errealitatera bihurturik, gazteriari eta emakumeari eman zaio txarrenetakoa asuntu honetan. Izan ere, 25 urtetarainokoak, %40 tan lanik gabe daude eta egonen dira. Emakumeari buruz, langabeziaren kopurua gizonen baino hiru aldiz gehiago da.

Europako Elkartearen Batzordearen ustez, langabezia geldierazteko zabalkunde ekonomikoaren eritmoa segurtatu behar da. Beldur gara zabalkunde ezinezkoa ez ote den zeren 1985. urtean langabeziaren kopurua hiru milioitaraino jaisterazteko urteroko langabeziaren

duktu nazionala (PNB) %7tan jaso behar litzateke hemendik aurrera. Gaurko (PNB)-ren gehikuntza %2tako besterik ez denez aipatutako jasotze hura ezinezkoa eta fikziozkoa dela kontsidera daiteke. Europako Batzordeak ateratako ondorioak ez dira inola ere serioak izan eta ba liteke ere prentsaurreko ondorio argitaragarriak bakarrik izatea. Guk uste dugu ordea, langabeziaren benetako iturburu eta etorriak azterturik gabe gelditu direla. Europako Elkartearen ez du inork seriozki langabezia kendu nahi; langabezia kentzeko oraingo ekonomiaren oinarriak ezabatzea beharrezkoa baita.

Langabeziaren iturburuetarik asko ezagun-ezagun dugu jadanik. Industrietxe eta lantoki askotako ateak hitxi dira. Langileak milaka kalera botatu dituzte. Betidaniko industrigintzak kolpe gogorrenak hartu ditu, metalgintzak, untzigintzak, ehungintzak, jantzi eta zapatagintzak hain zuzen. Azken sei urte hauetan Frantziako jantzigintza bakarrik 100.000 lanpostu desagertu dira; untzigintza berriz, gaur daudenetako erdia.

Krisisaren arrazoia oso sinplea da. Fabrikak desagertu dira baina kapitalak ez. Kapitalak oso urrun eramane dituzte, inbertsioak hirugarren munduan eginez, Argentinan, Brasilen, Mexikon, Venezuelan, Hego Korean, Côte d'Ivoire/Costa de Marfil-en, Kongon etab...

### Hego Euskal Herriko batzordea: Merkatal Ganbara.

Eta aurrikusteak horrela badira European, hemen Hego Euskal



Automobilgintza eta ohizko industria gaizki dabil Europa guztian. Belgikako Citroën-ak hitxiko dituzte. Peugeotenean 2.500 lanpostu kenduko dira 1981.ean.





Bitartean Euskal Herrian Garaikoetxeak erru handienetakoa ETA-ri eta zerga iraultzaileari botatzen dio.

Herrian beste batzorde batek antzeko argudioak atera dizkigu orain ez asko. Euskal Merkatal Ganbarari buruz ari gara. Akordio ekonomikoak sinatu eta geroko agiri batetan Ganbara honek "berreskuratze ekonomikoaren sintoma bereziak" nabaritzen ari direla diosku... "Forzando el lado optimista podríamos quizás encontrarnos en el preámbulo de la recuperación económica, teniendo en cuenta que ésta de ningún modo aparecerá súbitamente, sino que constituirá un largo proceso en el que los esfuerzos no podrán ser escatimados por nadie".


Ongi da. Zuzpertzeko ekonomiko berri bati buruz ari dira. Ba dakite ezinezkoa dela. Ba dakite langabezia gero eta handiago izanen dela baina hala ere gale-riarentzat optimismoa botatzen dute; zertarako bada baketzea, akordioak, polizia autonomoa, etab, etab.? Baina argi diote: "Constituirá un largo proceso en el que los esfuerzos no podrán ser escatimados por nadie".

Prozedura luzatuko zaigunez amaigabeki, errudunak laster bilatuko dituzte: grebak, ETA, zerga iraultzaileak eta ba liteke drogadiktoren edo halako zerbait bertan sartzea.

Euskal Ganbararen agiria eta akordio ekonomikoak bata bestearen atzean iritsi zitzaizkigun. Lehenengoa azkenaren ondorio positiboa.

Hainbeste urtetan zehar Espainiak aterra ditu mozkin izugarri handiak Euskal Herrian, mozkinok bere kasta menderatzaileak oso urrun eramanez. Guk ez dakigu nora eraman zituzten eta zehatz-mehatz halakoekin egin zutena. Gauza seguru bat ba dakigu: Aberastasun horiek hemen ez ziren gelditu, ez zuten beraz ez euskal burjeseria ez langileria gizendu.

Euskal Herriak apur-papurrekin gelditu zen. Baina oraingo honetan gauzak alda-



Akordio ekonomikoak direla eta, Euzko Merkatal ganbarak zuzpertzeko ekonomiko egiten ahal dela dio, baldin eta ahalegin guztiak martxan jartzen badira.

tu direla jende askok pentsa dezake. Ez dugu uste hainbeste aldatu denik, formak bereziki aldatu dira. Krisisa dela eta, Estatuak ez ditu jadanik garai haietan aterra zituen mozkinak berriro ateratuko eta, zaudete seguru, krisisarik egon ez balitz akordiook ez ziratekeen inoiz sinatu, ez baita berdin mila milioiren %60 eta ehun milioiren portzentaia berdina.

Lantxo hau bukatzerakoan aholkutxo bat euskal ganbarari eta handikiei eman nahi diet erdaraz: "No os recupereis mucho porque os los vuelven a quitar".

F H

## EUSKAL PRENTSA BARIK EZ DA EUSKAL HERRIRIK SIN PRENSA EN EUSKARA NO ES POSIBLE EUSKAL HERRIA



Boletín de suscripción

**Harpidedun  
berririk gabe,  
Euskal Prentsak  
ez du  
etorkizunik.**

Eta aldizkariok desagertuko balira, ondorio latzak izango lituzke horrek Euskal Herriko kulturarentzat. Gure Herriaren ondare eta gure nortasunaren ezaugarri den euskarak, elkarri aditzeko erabiltzen dugun tresna horrek, beren atea zabal-zabalik irekitzen dizkieten komunikabide bakarrak galduak lituzke betirako.

Egoera honi erremedioa jartzeko, zure laguntza behar dugu.

**EGIN ZAITEZ ALDIZKARIOTAKO BATEN EDO GEHIAGOREN HARPIDEDUN. BETE EZAZU TXARTEL HAU.**

"Prentsa euskaraz" en izenean, mila esker.

**Sin más suscripciones  
a la prensa en euskara  
no es posible  
la supervivencia  
de estos Medios.**

Y la desaparición de estas publicaciones acarrearían unas graves consecuencias para la cultura de todo el País. El euskara, patrimonio del pueblo, vehículo nuestro de comunicación, elemento definidor de nuestra personalidad, perdería así los únicos Medios impresos en cuyas páginas encuentra una acogida total.

Para intentar salvar esta situación, necesitamos tu colaboración.

**SUSCRIBETE A UNA O VARIAS DE ESTAS REVISTAS. LLENA ESTE BOLETIN.**

En nombre de toda la "Prentsa euskaraz", gracias.

Izena

Nombre

Kalea

Calle

Herria

Población

ZK

N.º

Herrialdea

Provincia

Bizitza

Piso

ANAITASUNA

Hamabostkaria. Urteko harpidetza: 1.500 pzt. Publicación quincenal. Suscripción anual: 1.500 ptas.

ARGIA

Astekaria. Urteko harpidetza: 2.500 pzt. Publicación semanal. Suscripción anual: 2.500 ptas.

HERRIA

Astekaria. Urteko harpidetza: 2.250 ptas. Publicación semanal. Suscripción anual: 2.250 ptas.

JAKIN

Hiru hilabetekaria. Urteko harpidetza: 1.100 pzt. Publicación trimestral. Suscripción anual: 1.100 ptas.

SASKI-NASKI

Hilerokoa. Urteko harpidetza: 900 pzt. Publicación mensual. Suscripción anual: 900 ptas.

Hartu nahi dut:  
Deseo suscribirme a:

X batez jar ezazu harpidetu nahi duzun aldizkaria. Señale con una X la revista o revistas a las que quiera suscribirse.

Txartel hau bete eta gero bidal ezazu mesedez 495 posta kutzara. Bilbo, PRENTSA EUSKARAZ karta azalean jarri. Una vez relleno este boletín, envíelo, por favor, al apartado 495 de Bilbao, poniendo en el sobre PRENTSA EUSKARAZ.

ORDAINKETA MODUA: Harpidea hartzen duzun aldizkariak zurekin sartuko da harremanetan ordainketa modua jakin dezazun.

FORMA DE PAGO: Cada revista, a la que se suscriba, se pondrá en contacto con usted para darle a conocer sus formas de pago.



## JOKO DEMOKRATIKOA

Eriotza eta bizitza, gure bazterretako zulo eta karkaba guztiak betetzen ari den joko demokratiko honek orain apenas lau urte argia ikusi zuen. Joko demokratikoarengatik onartu ez zen konstituzioa inposatu zitzaion herri honi. UCDko burmuin grisak, Martin Villak, administral eta politik egiturak moldatu zituen Euskal Herrian, Nafarroan batez ere. Kartak trukatu zituztenez, irabazteari jarraitzen omen diote.

Joko demokratikoak autonomi estatutu berezi bat inposatu zuen eta Gernikako lehen idazketa barik bigarren idazketa eska-sagoak gaina hartu zuen. Egin zituzten jokaera politiko eta demokratiko hauek bada-kitzagu ere, oroitzea komeni zaigula uste dut, joko demokratikoaren baldintza guz-tiak nolakoak diren eta izan diren gure bu-ruetan eraman ditzagun.

Joko demokratikoari esker, gure Herri osoaren errebindikapen "Ez demokrati-koak", independentzia, berjabetasuna, al-derdi politiko guztien legezapena, polizia autonomia, Hego Euskal Herriko lau herrialde historikoen batasuna, euskara, Ez FOPik, Lemoiz eta ab. antiterrorista deritzan legepean ereri dira. Eusko lege biltzarrea, hortaz eta bes-te askotaz txontxongilea da. Eusko Gobernua, txorimalo bat Honen eta haren kurruskadak (Lemoizeko arazoari buruzko erreferendu-ma) konstituzioaren kontrakoak. Beren atri-buipen eta eskubideak, errealtateari baino, fikzio zientziari dagozkie. Haren ministro batzuren intentzio onak, bolandera politik besterik ez dira. Kolore eta zarata asko baina mami gutti. Ikastolek subentziorik ga-be dihardute ehuneko 80an, euskarazko es-kola publikoa utopia bat besterik ez da, euskarazko komunikabideak edo ia apenas ez dago edo eta daudenak hiltzear, euskal telebista "ad calendas graecas" eta bitarte luze luze horretan herriak bere betiko sake-la zulatuetan txanponak bilatzen ditu.

Gainerako arloetan sartzean zer esan ge-nezake joko demokratikoaz? Torturaz, txi-kizidioaz, atxilotze, arrastatze eta gartzela-ratzeaz? Zenbat preso daukagu presonde-gietan 350?, 400?. Zenbat atzerriratu? 500? Francok ez zuen garaia hartu, ez, joko de-mokratikoak hartu du. Baina joko demokra-tikoaren ondorioak ez dira horrekin buka-tzen.

Paradisu honetan arrantzaleak oinortozik daude, ez urik ez arrantzarik. Industrigintza behera doa, ttikia eta handia. Ttikiak, porrot, handia Afrikara eta Amerikara. ETArri errua botatzean kunplitzen dute Olarrak eta joko demokratiko honen aldeko guztiak. Baina hala ere, jende asko harrotzen da joko demokratikoaz. PSOE, PC eta zer esa-nik ez UCD eta AP. Joko demokratiko ho-nek putetxe merke baten antza ba du; ira-bazi dena, euskal burrukalariengatik izan baita. Gogora dezagun, Espainia faxista eta erdirakoi honetan euskal estatutua txar-txa-rra bada ere, Espainiako garaiena da eta garaipen hori, gogora dezagun berriro, eus-kal burrukalarietara esker izan da, harmatuei eta ez harmatuei baina gehien batean lehengo.

Joko demokratiko honetan Nafarroari zati txarrena eman zaio. Adierazgarria hilabete honetan bertan izan dugu, Diputazioak H.B., E.E., E.M.K. eta E.A.J. kanpoan utzi ditu arrazoi logikorik gabe "forua hobe-

tzeko" asuntuan. Baina modu berdinez eta PSOEren laguntzaz delako diputazioak UPN sartzen du nahiz eta diputazioan par-terik ez hartu. Beraz, nafarroako euskaldu-nak ez dira nafarrak. Rosonek bitartear-lasai, lasai, banda harmatuak munta ditz-ke euskal abertzaleak hiltzeko. Erahiltze-haueetan begi puntuan daudenak errefuxia-tuak eta HBzaleak izaten dira baina EEkoak eta EAJkoak ez dira horregatik libratzen nahiko dute aberriaren alde udaletxeetan edo beste tokietan erabaki abertzaleak har-tzea eta erahilik izateko aukera irabazte-dute berehala. PSOEek ez du nahi Nafarroa-ko arazoa "demokratikoki" erabakitzea. Erreferenduma baztertzen dute eta denoi-dakigu zein den atxakia. Eusko estatutu-aren aldeko erreferendumaren ez zuten ez-halako kontzientziarik.

Eguberrietan gaude eta gure euskal pre-soak, gure etxeak, gure senideak ustel-tzen ari dira joko demokratikoaren gartze-latan. Zigorra, ehun urte baino gehiago dute





**Berorixe dugu zapaltzaileen taktika hotza. Herria nekatzea, herriari gogo kentzea, frustatzea eta horretarako dena baimendurik dago. Zoritxarrez, guretako askek, alderdik zein erakundek, halako joko demokratiko horretan laguntza handia ematen ohi diegu inolako politika eta taktika errealistik ez baita aurrera eramaten.**

Egoera honetan Suarez etorri zitzaigun bisita egitera. Bisita honek beste asko ekarriko digu eta akordio ekonomikoekin batera Espainiako erregea bera paseatuko dituzte gure herrietan zehar, Otsailean, Martxoan, Apirilan? Erabakitze dago oraindik. Zapalkuntza eta errepresioa ez dago erabakitze. Erregearen bisitarekin gartzelak beteagoko dituzte berriro eta gu jarraituko gatazka betiko bideari: Batzuk etsipenari, beste batzuk amets iraultzaileari eta txokolate con txurros artzeari. Tartean, indiferentzia, pasotismoak gizenduko al ditu lerroak?

Baina joko demokratiko honen ezaugarriak horrela izan arren, soluzio bidea ba dago. Eta soluziobidea ez dator inongo ziri majikotik, ez datorkigu kaleetan zehar botatzen ohi ditugun hots eta garrasietatik Urtzitoren

**Baina nola GEHITU?, nola ANIZTU?... Etsituen eta "iraultzaile" super-star hoi bitartean dago herri honetan benetako ahalmen bat; martxan jartzea nahi duen eta behar duen jendea.**

## Prosiguen las reacciones a las últimas detenciones

Se convoca huelga para hoy en la Universidad de Deusto

SAN SEBASTIAN (EGIN).— Las detenciones practicadas durante los últimos días en Guipúzcoa están provocando diversas reacciones. En tanto los estudiantes de la Universidad de Deusto, ayer se decidió en una asamblea celebrada en Zizurkil que, a partir de hoy, se procederá a cortar la carretera Billabona-Zizurkil a las cinco de la tarde y hasta el día en que se efectúe una manifestación en San Sebastián.

1980 abenduak 18, osteguna

**egin**

## Juzgadas tres jóvenes vizcainas por presunta colaboración con ETA militar

El fiscal pide un año y un día de cárcel para cada una de las acusadas

## El Ayuntamiento de Olazagutia denuncia las «diarias detenciones en Euskadi»

AMPLONA (EGIN).— Con motivo de la detención de Oscar Andía, vecino de Olazagutia, el Ayuntamiento de Amplona denuncia las «diarias detenciones en Euskadi».

Con motivo de la detención de Oscar Andía, vecino de Olazagutia, el Ayuntamiento de Amplona denuncia las «diarias detenciones en Euskadi». Los detenidos se sienten aterrorizados por su forma de actuar continuamente, sin una base real de ningún hecho. A juicio del Ayuntamiento, «hechos como los descritos deberían ser notificados y consultados con la primera autoridad municipal, cumpliendo los diversos y variados acuerdos adoptados por el Ayuntamiento a raíz de las detenciones».

**egin**

## Atentado contra el bar «te» de Lequeitio

lanzaron un artefacto y dispararon a la puerta sin herir a nadie

Guardia Civil

## Amorebieta: indignación popular ante presuntas torturas a los detenidos

Aumenta la convicción de malos tratos al impedirse en La Salve la entrada a un juez, un médico y un abogado desde un vehículo R-5, se hizo explotar un artefacto que hizo explosión y produjo roturas en la fachada del establecimiento. Luego este vehículo, junto con un segundo

## Familiares de detenidos denuncian torturas individuales y generales

BILBAO (EGIN).— Los familiares de los detenidos de Amorebieta entregaron a la prensa ayer el siguiente informe sobre las torturas sufridas por cada uno de ellos tanto a nivel individual como general.

Fernando Irakulis: Dos días colgado de las muñecas. Nada más meterle en el coche le golpearon y le saltó la lentilla izquierda. Es miope en alto grado.

vieron a la orilla de la carretera durante ocho horas dentro del coche. "Ha sido más duro que todo lo de La Salve", comentan ambos.

El presidente del Tribunal Supremo visitó ayer Bilbao

## «Se investigará el tratamiento judicial seguido en el caso de José Torre Altonaga»

El presidente

### Torturas individuales

Ernesto Alberdi: Tenía rotura de ligamentos antes de ser detenido. A pesar de ello le hicieron subir al GORBEA, y después ha estado un día colgado de esta pierna; le han arran-

Yon Larrauri: Colgado de las muñecas, igual que Fernando. Le hicieron lo de la pistola —dejarle solo en una habitación con una pistola—. Tiene los ojos totalmente amoratados.

### Pro

El MK riel de presencia. detención inician

askok eta "bitarte" horretan pentsu lehorra ematen dietelarik erotu eta zapuztu egin nahi dituzte.

Berorixe dugu zapaltzaileen taktika hotza. Herria nekatzea, herriari gogo kentzea, frustatzea eta horretarako dena baimendurik dago. Zoritxarrez, guretako askok, alderdik zein erakundek, halako joko demokratiko horretan laguntza handia ematen ohi diegu inolako politika eta taktika errealistik ez baita aurrera eramaten. Beraiek bai, beraiek ba dute taktika hotza. Alde batetik, bakearen aldeko frontea litzateke atal bat. Bigarren atala, alderdi abertzale guztien desprestigioa, hirugarrena, akordio ekonomiko batzua lortzea, laugarrena Nafarroan hestutu eta ito egitea. Bostgarrena, guk geuk egiten eta erutzen dugu, zeren dugun taktika guztia kaleetan oihukatzea baita.

ahalguztidunak gure etsaiak eta zapaltzaileak kiskali edo eta mitraila ditzan. Soluziobidea ez zaigu etorriko mito edo istorio erromantikoetatik. Soluziobidea ez dator ezker mutur-muturretako haurkerietatik ez eta GORRIGORRIZ jantzitako askoetatik.

Hemen, herri honetan GEHITU behar da, ez KENDU!. Hemen, ANIZTU behar da ez BEREIZTU! eta lehen tasun hauen arauera herri guztiak askatasunerantz abiatu dira.

Baina nola GEHITU?, nola ANIZTU?... Etsituen eta "iraultzaile" super-star hoi bitartean ba dago herri honetan benetako ahalmen bat; martxan jartzea nahi duen jende pilo handi bat, burrukan parte bat hartzea nahi duen eta behar duen jendea; parte hartzea, lan egiteko dinamika batetan egotea frustrazio kolektiboan ez erortzeko

hain zuzen ere. Jende guzti hori, apertura demokratikoaren alde dagoena, beren inizatibak behar ditu aurrera eraman, desarrollatzea. Hau guziaz litzateke GEHITZEA. Norberak bere joko kolektibo eta propioa eramanez, elite gidatzailerik gabe, talde burukratikorik gabe. Burruka harmatuak ba du bere joko, baina herriak ez du jokoko kolektiborik burrukan. Asuntuak garbitzea, erabakitzea, argitzea DENON ARTEAN eta ziria eta zurrumurrua UTZII! Kritika eta kontrakritikari bai! Eztabaidarik gabeko erabakiei ez! eta jakina hau guzietan APURTURA DEMOKRATIKOA LORTZEKO BENE-TAKO ESKUSARTZE POLITIKO PRES-TATU behar du gure herriak lan egin dezan, parte har dezan eta bere burua hezi dezan.

E.H.




# HANKAZ GORA



## BANKUAK GERO ETA ABERATSAGO

Ekonomi krisisan oso osorik sartuta bagaude ere, ez du ematen horrela daitekeenik hainbat jenderentzat. Espainiako Estatu-ko zazpi banketxe nagusienek mozkin izugarri handiak atera dituzte oraingo honetan. Gutti gorra behera 50.000 milioi pezeta kalkulaten da urte erdi batetan. Oso osasuntsuak daudela ematen dute alde guztietatik. Osasun honetako arrazoi garrantzitsuena prestamoetan dago. Prestamoen erdiko kostua %20 eta askotan %30ean egoten da. Ezberdintasun hauei esker Espainiako Estatu-ko bankuak

lehen postua irabazten ari dira munduko beste banketxeen artean. Eta fikziozkoa ba dirudi, horrela da. Industriad eta ekonomiaz guztiz atzeraturik dagoen Estatu honetan zazpi banketxe nagusienak beren uzta onuragarrienak biltzen ari dira. OCDE-ren estudio baten arauera, kobrantza eta ordainketaren arteko ezberdintasuna %5,7koa da eta beronek errentagarriena izatea egiten die delako banketxei. Mendebalde osoan Danimarkako bankuek solik irabazten diete hemengoei. Estudio berean datu adierazgarriak azaltzen dira: Negozio kopuru osoaz Estatu honetakoek %1,46 irabazten duten artean, italiarrek edo eta frantses banketxeek %0,5 irabazten dute. Bitartean, gobernuari berdindio hau guziona eta krisia pagatzerakoan langileriak eta industria ttikiak pagatu beharko dute.



## DURANGOKO AZOKA

Aurtengo Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan berrogeita hamazazpi argitaletzek beren standak zabaltu zituzten. Hiru egunetan zehar zabaldurik egon den azoka honek gustu ona utzi du hara joan direnengan. Hala ere, euskarazko liburuaren alorrean ez da beste munduko produktiorik eman azken hilabeteotan. Elkar-ek argitara

duen "Psikologi Hiztegia" eta Ediciones Vascas delakoak eman duen Txillardegiren "Euskal Fonologia" dira ahaztu ezinakoak.

Haur literaturaz arduratzen diren argitaletxeek egin dute aurtengo honetan ahaleginik oparona, kolekzio berriak ere dextente baitira ipuin eta komiken sailean. Horgado-k argitara duen "Xagusarra" aldiz-karliburu literarioa ere aipagarria da.

Azkenik, saltzaileek esaten zutenez, jende asko izan bada ere, salmenta ez da neurri berekoa izan, erostera baino, ikustera gehiago baitoa.

Aipatzekoa da bestalde, Gere-diagokoek argitaratu duten katalogoa, bertan, euskal argitaletxeen obren zerrenda baliotsua azaltzen baita.




## IBILGAILU ISTRIPUEZ, ESPAINIAKO ESTATUA LEHENA

Ibilgailu istripuez, Espainiako Estatuak lehen postua irabazten du eta irabaziko du dudarik ez



hemendik aurrera. Hildakoen porzentaiak gonbaratuz gero, 1976.tik 1977.ra hildakoen kopurua %1,8 gehitu zen. Baina hurrengo urtean, hau da, 1977.tik 1978.ra hildakoen kopuru hori 10,7ra igo zen. Europako beste Estatuon porzentaiak bitartean guttitzen ari dira. 1974.tik aurrera hildakoen kopurua guttiti da Europako Estatu guztietan, Espainiakoan ezik.

Hona hemen grafiko adierazgarri bat:



## ALDIZKARI BERRI BAT IPARRALDEAN

Azaroak 20 beste aldizkari berri bat sortu zen Iparraldean. Izena "Herriz Herri" ba du ere, zabalkundea ez da Euskal Herriko herri guztietara izanen. Iparraldean ere ez. Dirudienez, Nafarroa Beherean eta Laburdiko zenbait herritan zabalduko da soilik. Aldizkatasuna asterokoa izanen da eta bertan idazten dena frantsesez eta euskaraz argitaratzeko asmoa dute. Lehen alean %50 euskaraz egon da. Etorkizunak esanen digu porzentaia hori gordetzen den ala ez. Hala ere, porzentaia berdinentan segituz gero, oso eredu ona litzateke bestaldeko hainbeste "eskualtzale eta abertzale" porrokatuentzat, berarek argitaratzen duten ia guttia frantsesez egiten baitute.

# GARTZELA HANDITIK GARTZELA TXIKIRA: ZORIONAK!

Nahikoa idatzi da euskal prentsan Joseba Sarrionandiari buruz. Baina segur asko, ez behar bezainbeste. Euskal idazleok motel erantzun diegu beraren gartzelatzeari; ez dugu ausartziarik izan, egintza kolektibo batetan geure inpotentziaren haserrea kaleratzeke; ez dugu kemenik izan, torturen salakuntza gogorrik egiteko; ez dugu...

Ba dakit, Joseba ez dela gartzelatu eta torturatu bakarria eta, zer esanik ez, beste guztien arazo ere buruan daukat. Edozertara, euskal idazleen indar potentziala kaleratzeke aukera ederra pasatzen utzi dugulakoan nago.

Oraingo bertso hauekin, berri pozgarri bat atxakitzat hartuz, Joseba (eta beste gartzelatu-torturatu guztiak) aipatu nahi dut, bide batez zorionak bidaltzeko probetxatuz. Korritua hauxe da: Gartzelatu dutanetik hona, hiru literatur sari irabazi ditu. Gartzelatu behar ote zen izan horretarako? Euskal Herriak gartzelan utziko ote du usteltzen etorkizun handieneko idazle hau? Eta beste preso guztiak? Galderak hor daude.

Nik ez dakit egoki den, horretarako bertsoak eskaintzea, baina X. Amurizak gartzelan zegoela "Euskal Herriatik aparte" izenez prestatu zituen bertsoen doinuaz, ondoko hauk prestatu ditut:

Lege bat dela bitarte,  
horrela hainbeste urte,  
lanean dabiler jendearentzat  
zigorra dakarte  
Nahiz ta torturatu fuerte  
arrazoirik ez daukate  
fazismoaren indar zihala  
besterik ez dute.

Nahi dute dena kakaztu  
gure ingurua nahastu  
Paloak hartzen ohituak gara  
hala ere estu  
Agoantaturik justu  
zuen alde miña esku:  
Jende zintzoa gartzelatuez  
ezingo da ahaztu!

Hauxe dugu komedia,  
esan behar dut egia:  
bildotsa preso dagon artean,

libre azeria.

Gaitezen denok abia,  
burrukara alegia,  
Apurtuz mundu hontan dagoen  
gartzela handia.

Joseba adiskidea,  
askatasunik gabea,  
egóera lez, ez pentsa denik  
gurea hobea.  
Bihotz barruko labea  
lanean duzu aterea:  
Mundua azal lumaren bidez,  
idazle trebea!

Gustura hartzen nuen Pott,  
hori lotsa gabe diot;  
txalogarria zuen langintza,  
sinetsi, lagunok!  
Argitaratzeari lot,  
hiltzea nahi luke askok  
Anima zaitez, Euskal Herriak  
ez du egingo pot!

Maite dituzu poemak  
idatziz gauza sakonak.  
Gauza ederrak agertzen ditu  
egia dionak  
Epa-mahaletan egonak,  
harritu dira gizonak.  
Ondo merezi, duzu saria,  
beraz, zorionak!

Poztu naiz herriarekin,  
nola ez hartu atsegina?  
Udal saria irabarizik,  
Azkuerena berdin.  
Segi lehenago bezain fin!  
Idazketan tinko ekim!  
Euskaldunontzat: literatura  
espetxean egin!

Preso gertatu arren hor,  
zurekin dugu hainbat zor.  
Salatzen gara, baina ez behar  
bezainbeste gogor  
Aritzen bagara jator,  
Zuek libratuz derrigor.  
Amnistiakin horko guztiak  
honá laster etor!

Txepetxa



Edozein fenomeno aztertzerakoan prozesu oso baten barruan sartu beharko litzateke. Gauza bera gertatzen da kibutzekin. Ezin da fenomeno hau beronen koordenadetatik kanpo aztertu, eta koordenada horik Israelgo atzoko, gaurko eta biharko egoerari dagozkionak dira. Egoera hau oso konplexua izanik ez naiz hemen ausartuko Israelgo egoeran kibutzek daukaten jokatibidea zehatz-mehatz azaltzera, baizik eta, fenomeno honi hurbiltze bat askorentzat interesgarri izan daitekelakoan.

## KIBUTZIM (KIBUTZak): ZER DIRA?

Zer da kibutza? Hona hemen hango panfleto batek dioskuna: "Ez da fenomeno berri bat, orain dela 70 urte (1909) sortu baitzen lehenengo kibutza (Degánia izenekoa) Galilea lakuaren ondoan eta gaur egun ia 250 kibutz aurkitzen baitira Israel osoan, 100.000 pertsonaz gora batzen dituztela. Kibutza ez da sekta erlijioso bat, gaurregun 20ren bat kibutz erlijioso izan arren; ez da koljoz sobietiko bat, enpresa kolektiboa izan arren; ez da Txinan Estadupean dauden komuna horietariko bat ere ez; Kibutza ez da gasteentzako udalekua". Baina orduan, zer da kibutza? Jarraitzen dugu irakurtzen: "Kibutza, Israelgo lurra Judu Herriaren baldintza bereziek sortutako bizimodu kolektiboa da". Bizimodu hau, ba, juduen ideia nazionalak gidatuta dago: "kibutzetako kideak ez dira denak idealista osoak, baina kibutzak berak Mugimendu bezala, eta kibutz bakotxa unitate bezala, ideia haundi batek eraginda daude. Estatuaren inongo potereak ezin galarazi dezake kibutzkideen zirkulazio askea. Bizimodu hau bizitzeko kide bakotxak daukan nahia da kibutzen oinarritzko hastapenatariko bat. Gizarte honetan kideek parte hartzen dute dauzkaten guztiak emanez: lurrak, lanabesak, dirua... hau guztiau jabego kolektibora pasatzen dela".

"Bakoitzak ahal duena egiten du eta behar duena hartzen du. "Kibutza bera arduratzen da kideek behar dituzten zerbitzuetaz: etxebizitza denontzat; laguntza medikoa; heziketa dohaina eta beharrezkoa 18 urte arte — hemendik aurrera unibertsitatera doazenei kibutzak berak ordaintzen dizkie ikasketak —; eguneroko beharrianak...

### KIBUTZ BATEN ERAKETA

"Batzarlekua da eraketa horren ardatza. Hasieran bertan egiten zen jana-kontua. Gaur, hortik kanpo egiten bada ere, kontserbatu egin du bere funtzioa: hiru janari bero egunero (kibutzkide guztiak jaten dute hemen egunen


behin bederen). Bertan mintzatu, eztabaidatu eta erabaki egiten dira era guztietako arazoak: administratiboak, lanekoak, pertsonalak...

"Kibutz baten bizitzari dagozkion arazo guztiak asanbladan eztabaidatzen dira. Asanblada Orokorra goi mailako instituzioa izanik. Bertan kargoak aukeratu, diru-kontua onartu, erabakiak berraztertu, kide berrien sarrera diskutitu, eta normala ez bada ere, batzutan, kibutzaren funtsezko oinarrien arauera bizi ez den kideren bat bota ere egiten dute. Ez dago Asanbladan eztabaidatu ezin daitekeen inongo arazorik.

Kibutz baten idazkaritzak zazpi lagunetik ha maikara dauzka eta kibutzaren eguneroko bizitza administratzen du. Horko lagunak Asanblada Orokorra aukeratutakoak dira, urte bat edo bitarako eta kargu horiek ez dute abantailarik ematen. Hauek kibutzaren lan administratiboak betetzen dituzte: idazkaritza orokorra, arazo sozialak, finantzak, lana, heziketa... Idazkaritza, ba, Asanblada Orokorrean dagoen potere ejekutiboa da".

"Kibutzeko bizitza familiarra, ideia faltsuak hedatu badira ere, oso inguru egonkorrean desarroilatzen da. Kanpoko bizitzarekin gonparatuz, bertako familietan arazo ekonomikoek ez daukatela inongo eraginik guraso eta haurreen arteko harremanetan esan genezake. Harremanok maitasun eta elkar ulertzen dau-

"Kibutz baten bizitzari dagozkion arazo guztiak asanbladan eztabaidatzen dira. Asanblada Orokorra goi mailako instituzioa izanik. Bertan kargoak aukeratu, diru-kontua onartu, erabakiak berraztertu, kide berrien sarrera diskutitu, eta normala ez bada ere, batzutan, kibutzaren funtsezko oinarrien arauera bizi ez den kideren bat bota ere egiten dute.





tza. Ez da arraroa gertatzen familia bereko lau belaunaldi batera egotea kibutz berean”.

## NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA KIBUTZEAN

“Mugimendu honen oinarriek diotenez bertako lanak kideek egin behar dituzte. Baina kibutz guztiek ezin dute honela jokatu, batez ere uztaroan, eta laguntzaren zain egoten dira. Laguntza hori, Israel edo kanpoko gazte bolondresengandik datorkie. Umeak, ostera, txikitari hasten dira lanean: eskolan daudenean uztaroan laguntzen dute”.

“Nekazari juduak ez zeukan, hasieran, inolako esperientziarik ez eta lur egokirik ere ez. Hasiera-hasieratik asi behar ziren eta hortikxe datorkie arlo honetan lortu duten arrakasta itzela. Gaur gorenatariko maila lortu dute nekazaritzan eta gainera, aplikatu dituzten ezaguera zientifikoak eta teknologia berriak beraiek desarroilatuak dira. Duela gutxi arte, zingiraz beterik zeuden aldeak gaur, berriz, berdeleku



**Zer da kibutza? Hona hemen hango panfleto batek dioskuna: “Ez da fenomeno berri bat, orain dela 70 urte (1909) sortu baitzen lehenengo kibutza (Degánia izenekoa) Galilea lakuaren ondoan eta gaur egun ia 250 kibutz aurkitzen baitira Israel osotan, 100.000 pertsonaz gora batzen dituztela.**

bihurtu dituzte. Eguzkiak hain gogor jo arren, oso alde zabalak izaten dira nekazariak prestatuak. Negutegiak ere erabiltzen dituzte eta etengabeko eguzkiari esker, posiblea daukate neguan barazki eta fruituak Europara bialtzea”.

“Abeltzantzan ere, dena daukate mekanizata. Gogorki kontrolatzen dute animalien jana eta produkzioa”.

“Honekin batera, azken bolada honetan industria ere garatuz joan da kibutzen artean. Espezializatzen hasi dira: beraiek ateratako produktuak kontserbatan ipintzen, plastikoak lantzen, glukosa eta almidoa produkzitzen, etxerako tresnak egiten, industria elektronikoa, ikerkuntza-laboratorioetan....”

### HEZIKETA KIBUTZEAN

Garrantzi handikotzat hartzen da heziketa, eta umeena bereziki. Kibutz batzutan umeak gurasoekin bizi dira; beste batzutan, ostera, elkarrekin bizi dira umeak haientzat egindako etxeetan, eta gurasoak hara joaten dira nahi dutenean umeak ikusten.

“Kibutzak berak hartzen ditu ume guztien ardura, jaiordutik ikasketak amaitu arte eta arlo guztietan: fisikoa, soziala, irakaskuntzan, haur problematikoen kasua bai eta superburutsuena ere bai”.

“Ume guztiak doaz eskolara 18 urte egin arte. Gero soldaduxka (hiru urte mutilentzat eta bi neskentzat). Honez gero nahi badute unibertsitatera joan, joan egin daitezke kibutzak berak oradainduta. Heziketaren lehenengo etapa (14 urte arte) kibutzean bertan egiten da. Hemendik aurrera eskualde bereko kibutzen arteko eskolara joaten dira egunero, kibutz bakoitzean ez baita egoten (orain arte behintzat) behar adin bat. Maixu-andereñoak kibutzkideak izaten dira eta eskolan gizarte kibutzarraren baloreak ere irakasten dira. Kibutzetako eskolatan pedagogiaren metodo modernoak hartzen eta experimentatzen saiatzen dira. Lanerako heziketa laster hasten da, umearen indar eta desarroilo fisikoaren arauera. Horrela, langile onak izaten dira eta graduatzen direnean teoriarik falta zaiena praktikan ikasitakoarekin betetzen dute”.

### KIBUTZEKO JAIK ETA ARTEA

Bialik poeta nazionalak esan zuenez: “jaialdiak eguneroko lautadaren gainetik altxatzen diren mendiak bezalakoak dira”. Hau dela eta, beharizan materialak eta kulturalak maila berean kontsideratuak dira eta kibutz guztietan izaten da jaietarako etengabeko batzorde bat, behinik behi saio kulturalak eta kirol-saioak ere antolatzen dituena. Arteetarako interesa handia daukatenak hori baino ez dute egiten eta ki-





# NAZIOARTEKOA

**"Kibutzeko bizitza familiarra, ideia faltsuak hedatu badira ere, oso inguru egonkorrean desarroilatzen da. Kanpoko bizitzarekin gonparatuz, bertako familietan arazo ekonomikoek ez daukatela inongo eraginik guraso eta haurreen arteko harremanetan esan genezake. Harremanok maitasun eta elkar ulertzen dautza. Ez da arraroa gertatzen familia bereko lau belaunaldi batera egotea kibutz berean".**

butzean bizi dira beste edozein kide bezala. Kibutzak berak sostengatzen du artista beronen desarroi osoa permitituz. Artista etengabe ari da ingurugiroaren kritika oldartzen, baina askatasun osoa dauka bere zereginen. Era honetan, kibutzetako lan artistikoa oso da onetsia Israel osoan".

"Urtean zehar jai asko ospatu ohi dira kibutzean, nazioanalak zein lekukoak (esate baterako, kibutzaren urtehurrena). Dena dela, kibutz guztietan Bazkoan ospatzen den "Seder" izenekoa da jairik haundiena, kibutzkide eta beraien familiakoak batzen dituen. Beste jai batzu hauek dira: "Udaberriaren jai"; "Bar Mitzvá" (13 urte betetzean gazte judua heldutzat hartua da erlijioaren kontuetan); "Shavuoth" gizarte nekazala izanik ospatu egiten dute dohainaren jai hau; "Purim" hango ihauteriak,..."

"Israelen ez da ezkontza zibila existetzen; hau dela eta, erlijiosoak izan behar. Ezkontzera aldatu egiten da kibutz batetik bestera: batzutan, hurkotasunean egiten da, beste batzutan, ostera, kide guztiek hartzen dute parte".

"Kibutzen mugimendua judu ez-praktikarik sortu bazuen ere, urteak joan eta urteak etorri



**"Kibutzen mugimendua judu ez-praktikarik sortu bazuen ere, urteak joan eta urteak etorri kibutz erlijioso batzu joan dira finkatuz. Bizimodu orokorraren aldetik ez da aldaketa handirik bestetik, erlijio kontuan izan ezik. Erlijiosoetan sinagoga izaten da leku nagusia eta erlijioaren legez gidatzen dira".**

kibutz erlijioso batzu joan dira finkatuz. Bizimodu orokorraren aldetik ez da aldaketa handirik bestetik, erlijio kontuan izan ezik. Erlijiosoetan sinagoga izaten da leku nagusia eta erlijioaren legez gidatzen dira".

## AZKEN HITZA

"Kibutz baten aspektu batzu ikusi ditugu: lana, bizitza kulturala, umeen heziketa, ospakizunak. Mugimendu honen sustraia ezagutzen dugula esan genezake orain? Erantzuna hauxe litzateke: EZ, GUZTIZ. Kibutzaren izakera nahiko berezia eta konplexua da, orri batzutan explikatzen ahal izateko. Ba daude gurekin denboraldi batetan bizitzen egon direnak eta oraindino fenomeno hau posiblez duten faktoreak ezagutzen ez dituztenak: batzarlekua ez da jantokia, umeen etxeak ez dira barneratokiak, nekazaritza ez da bakarrik ogia irabazteko bidea, idazkaritza ez da administrazio-koontseilua... Eta hau da betiko galdera: bizimodu iraunkorra da hau ala Israelko gaurko baldintza politiko-ekonomikoen inposatutako bizimodua, iragapen-etapa honekin amaituko dena? Eta galdera honek ba dauka erantzuna: 70 urte Degánia sortu zenetik; 250 kibutzim eta 100.000 pertsonaz gora".




Iñaki





# HAURRAK EGITEN DU

## BASO ALAIA IPUINA



Ameriketako baso batean txori denak kantari ari ziren goizeko freskura harekin. Denak pozik zeuden udara etorri zelako. Baso hartan mutiko bat bizi zen, Antton izenekoa. Anttonek baso hartako abereak asko maite zituen eta abereak ere Antton asko maite zuten. Baso hartatik gertura gaztelu eder bat zegoen, hango errega oso zuhurra zen eta baso hartako abereak gorrotatzen zituen eta Antton ere bai. Baso harek Alaitasuna izena zuen, abereak poz pozik egoten zirelako. Erregeak Alaitasun basotik elefante bat harrapatu nahi zuen, baina inoiz ez zuten elefante hori harrapatu. Erregea haserretuta zegoen bere gudariekin, ez zutelako elefante hori harrapatzen.

Gau batean gudariak basora joan ziren elefantea harrapatzen. Baina Antton esnatuta zego-

en eta somatu zuen elefantea harrapatu nahi zutela. Elefantea sartu zuten kaiola haundi batean gudariak, eta elefanteak bere tronparekin Anttoni oihu egin zion. Antton laister azaldu zen abere pilo batzuekin eta baita ere borrokan hasi gudariekin.

Gudariak elefante gabe joan behar izan zuten gaztelura. Erregeak oso hasarre gazteluko toki txikienean sartu zituen eta ogia eta urarekin egon behar zuten, bizkarreko ederrak ere hartzen zituzten. Handik egun batzuetara gudariak berriz ere Alaitasun basora joan ziren eta orduan ez ziren joan elefantearen bila, baizik Anttonen bila. Antton gizajoa erregearen aurrean negar eta negar egiten zuen. Basoan konturatu ziren Antton falta zela eta toki guztietatik bila ibili ziren. Halako batean katagorriak esan zuen usten zuela gaztelura ere-

man zutela. Orduan denak pentsatzen jarri ziren zer egin. Batek hau esaten zuen, besteak hori eta horrela ari ziren pentsatzen. Azkenean goizaldera gaztelura joatea erabaki zuten. Burruka egitea eta hango traste, gauza, tresna eta harrapatutako gauza guztiak puskatzea erabaki zuten. Urrengo goizean esanda bezala denak batera joan ziren Anttonen bila. Denak gaztelura sartu ziren eta harrapatutako gauza guztiak puskatu zituzten.

Azkenean Antton bilatu zuten eta askatu ere bai. Handik piskatera denak Alaitasun basoan zeuden eta festa bat egitea pentsatu zuten.

Eta egin zuten festa hori, gau hartan denak lo ederki egin zuten.

Ana Mari Mugika 12 urte.

Lasarte.



## 1981 EDO BELDURRAREN KONTRAKO BURRUKA ZORIONTASUNA BERRESKURATZEKO

"Progresoaren" mito zaharrak desagertzen ari dira eta Superman gauzak konpontzera Metropolitara itzultzen bada ere, gaurregun, metropolitako arazoak ez ditu inongo Supermanek konponduko. Supermanek zaramen birziklatzeaz edo kalitatezko elikaduraz deus ere ez dakitelako. Superman, sinpleki, ez dago modatan, beste gauzaren artean, amerikarra delako, gasolina edaten duelako eta bizikletaz ibitzen ez dakielako. Gainera, Superman ez da existitzen, hegan egiten zoriontasunera iritsiko ez zela egiaztatu zuenean desagertu egin zen eta.

Honen imitatzailerak lortu duten gehiena, Ilargian "alpargata" jartzea eta itzultzean horrek ez duela ezertarako balio jakitea izan da. Ilargia ederra da, bai, baina Lurretik begiratuta bakarrik. Sekulan ez dira bueltatu.

"Mundu desarroilatuak" ederki erakutsi digu bere aurpegia; itsusia, zikina eta hortzez beterik aurpegia. Gaztetan, maltzurki izkutatu zuen bere itsuskeria; geroago, eta promesez beterik, miresle asko lortu zuen. Baina, gaurregun, mundu desarroilatu horri ez zaio fans bat ere geratzen. Geratzen zaiona, zapalkuntza, kutsadura, langeldiketa, bortxaketa eta progresoaren "apaizen" zerbitzurako jarrita den adimen zati handi bat baino ez da; progresoa, zentzugabeko utopian datzana; BURRUKATU, MUNDU FINITO BATEAN, GAUZA INFINITOAK LORTZEKO.

Agintariak denbora soberan izan dute beren ezintasuna frogatzeko, UTZ DITZAGUN! Ez dugu apezik gura, beraien erlijioek ederrak badirudite ere. Gure benetako NORTASUNA zein den jakin gura dugu, sinpleki, emakume bezala, gizon bezala, ino-

ren menpean egon barik. Taldearen nortasuna, komunitatearena bere berezko inguruarekin. Gure benetako beharrak eta gure geurezko baliabideak zeintzu diren jakin gura dugu. Etorkizuna geure eskuz egin gura dugu eta egingo ere; eta geure adimenez, gaurregun, berena izan barik ondo lotzen dutenengandik atereaz.



Ez zaizkigu mende honen bukaeraz modatan dauden ezkerkeriak gustatzen, milenarismoak beti izan baitira erlijioen bultzatzaileak eta hurbiltzen zaizkigun hondamenen predikarien sortzailea ere. Azkenean beti geratzen zaiguna BELDURRA da, eta beldurra, zapaltzaileen esentziarik maiteena da, berauek ederki baitakite hurbiltzen den hondamen bakarra, autoritatea galdu ondoren, zapalkuntzaren porrota eta iraultza orokorra dela.

Honez gero, asko gara, gehiegi gutxi garelako esaten jarraitzeko, inork ez dakien zeren defentsarako mundu honen harmatzea zapuzten dugunok; sistema hau mantentzeko erabiltzen den bortxakeriaren kontra gagozenok; inposatu diguten bizimoduaren ondorioak ezagutzeko aurkerarik ematen ez digun sistemaren kontra gagozenok, zeren eta, triste bada ere, zientziak berak ere ez ditu ezagutzen.

"Komunismoaren jokabidea" edo "helburu aitortezinak dauzkaten erakundeen jokabidea" dela guri esaten saiatzen badira ere, eta horrela kristoren zapalkuntza justifikatzen saiatzen badira ere, gero eta jende gehiago, munduko txoko guztietan, ari dira egunero bere nortasuna kaleratzen, edozein motatako zapalkuntzaren kontra, autoritatearen kontra... Metropolitako bizilagunak, ume zein langile, ikasle zein indio, zapalkuntza guztien kontrari borrokatzen, iraultza sozialerako oinarriak sendotzen hasiak dira.


1981. urtea, eta hurrengoak ere, beldurraren kontrako borroka izango dira, ZORIONTASUNA GUK GEUK BERRESKURATZEKO.

Sastraka



## Antzerkia, neguko lorea ere bai, zorionez.

Problema zera da, fatxek eksklusiba hartu dutela, edo hori ematen du behintzat. Oraingo honek "Un piano desafinado" zeukan izena. Pianoa Espainia zen, eta lehen "aitita"rekin ondo bazebilen ere, orain noski desafinatuta, eta politikariek (Fraga, Felipe, Carrillo eta Suarez) ez dakite nola konpondu. Beraz... norbait etorri behar da (Don Blas agian?). Itxuragabekeria hontan Fernando Sancho, Fuerza Nuevako aktore ezagun gorrotagarria zegoen sarturik.



Aurreko lan batetan neure buruari galdeetzen nion, ea teatroa Euskal Herrian udako lorea besterik ez zen, udan bakarrik izaten baikenuen antzerkia ikusteko aukera, ohizko salbuespenak salbu.

Zorionez, ba dirudi ezetz. Bilbon bederen udazkenaren erdi erdian, ia neguan, gustu guztietarako teatroa izan dugu eta gure hirian berriro:

Alde batetik teatro komertzialaren bidez, gutxi eskatzen duen publikoarentzakoa. Esaterako, Azaroaren lehen egunetan Miguel Sierraren "Maria la mosca" ("Mari eulia") antzerki ospetsua egon da aurkezten Florinda Chicoren konpainia. Prostituten egoera latza salatu, eta dibertigarria izan arren, ez da beste munduko gauzarik.

Hilearen azkenaldian errebista bat eta guzti izan dugu antzoki batetan. Ni beti izan naiz errebistaren defendatzaile amorratua, nahiz eta bat baino gehiagori arraro iruditu, zeren benetan "genero herrikoia" dela uste baitut, eta egiazko partehartzearen teatroa izan daitekela ere. Problema zera da, fatxek eksklusiba hartu dutela, edo hori ematen du behintzat. Oraingo honek "un piano desafinado" zeukan izena. Pianoa Espainia zen, eta lehen "aitita"rekin ondo bazebilen ere, orain noski desafinatuta, eta politikariek (Fraga, Felipe, Carrillo eta Suarez) ez dakite nola konpondu. Beraz... norbait etorri behar da (Don Blas agian?). Itxuragabekeria hontan Fernando Sancho; Fuerza Nuevako aktore ezagun gorrotagarria zegoen sarturik. Dantza-talde

eta musika ez ziren txarrak bestalde, eta M<sup>a</sup> José Nieto vedetteak bere papera betetzen zuen egokiro.

Bestetik teatroa independente delakoaren zenbait talde izan dugu (batzu profesionalak izanik ere). Adibidez, "Akelarre" taldeak Unamunoren "Fedra" errepresentatu du. Hontaz nahiko ondo zegoela esan behar dut, nahiz eta honelako taldeen moduko antzerkia ez izan. Esan genezake Aurrezki Kutxaren subentzioa jasotzeko edo derrigortuak sentitu direla obra hau aukeratzera. Hala ere, eta Unamunoren testua irakurri dudala aitorturik, montaiak orokortasunean egoki geratu zaiela uste dut. Egitura tradizionalako antzerkian talde independenteetako aktore-aktoriesak ere askatasunez mugitzen direla egiztatzeak poztu egin nau; gainera Iturri bera igon da eskenatokia hainbat urte atzekaldean egon ondoren.

"Intxitxu" taldeak bere azken lana presentatu du, eta Sevillako "La Cuadra" k "Andalucia amarga"rekin inork itxaroten ez zuen arrakasta izugarria lortu du. Azken bi talde hauetaz luzatuko naiz pixka bat, haiei egindako elkar-ikusken bitartez.

### "ANDALUZIA GARRATZA", HERRI BATEN OIHU URRATUA

"La Cuadra" taldeak 71. urtean jaio zen. Gure asmoa Andaluziako kantak eta dantzak berreskuratzea zen eta beraien txinguru dramatikoan kokatzea. Diberti-

mentu eta kordegabeziazko leku haietatik ateratzea, zeinetara baztertuak baitzeuden.

Honela "Quejío" lehen antzerkia sortzen da. Geroago "Los Palos" ("Makilak") etorri zen. Hemen elementu historiko bat sartzen dugu, Federico Garcia Lorcaen heriotza, espektakulua bere lekuan, bere garaian jartzeko.

Gero ikerketa heltzen da, espektakulo batetan funtsezkoa da eta. Orduan lanabesek dauzkaten posibilitate dramatikoak ezagutzen hasten gara. Honekin, haien bizitzan bizitzeko erabiltzen dituen jende multzo bat eskenariora igoteko aukera aurkitzen dugu".

### Zein teatro moeta egiten duzue?

"Gauza bat definitzen denean, jadanik hilda dago. Saikatu egiten badugu amaituta dirudi. Gurea aurrerabidean dagoen hizkera bat da, eta ez du sailkapenik onartzen. Historikori ez dagoela honelako lan baten aurretikorik uste dugu, historikoki herriak ez baitu inoiz egin bere teatroa; sektore bat zegoen beti, berarena egiten zuena. Eta aurretikorik ez dagoela teatroa ez delako; eta gaur egun herri giroa, hain zuzen ere, industriaren inguruan kokatzen da. Antzerki nolabaiteko kaletar edo herrikoi bat izan zitekeen garaietan, ez zegoen gaur dagoen industriar langileria".

### Baina andaluziar teatrorik ba al dago?

"Teatroa eginkizun inpersonal bat da, eta edonongoa izan daiteke. Gure handi nahietako bat zera da, gure herriaren histo-



# GAIK ANTZERKIA GAIK



"ANDALUCIA AMARGA bi-degabekeria baten lekukotasun ea salaketa da; horixe da, baina gainera eskenan desarroilatzen den ekintza gainditzen du. ANDALUCIA AMARGA Sofocles, Eskilo eta Euripidesk utzi dugutena ba dago: tragedia, sufrimendua, arte kategoriara jasotzeko gaitasun eta haunditasuna... A.A.n mina argi azaltzen da eta sublimatzen ere... A.A.n. gure historia dago, gure tragediarena..."

JULIO ANGUITA

Kordobako Alkatea



rian eta kulturaren sustraitutako teatroa sortzea. Ez da hitzetan bakarrik oinarrituriko teatroa izan behar. Antzerki bat ingelesez edo serbo-kroateraz egiteak ez du esan nahi ingeles edo jugoslaviar teatroa denik. Antzerki berbera izaten jarritzen du edozein hizkuntzatan. Arazoa bestelakoa da; herri baten elementu kulturalak agertuko ez diren bitartean, teatro inpersonala izango dugula. Hau lortzen bada, orduan egongo da andaluziar teatroa, eta euskalduna, eta ingelesa... Orain, ene ustez ez daude".

## Zergatik edo zertarako "La Cuadra" Euskal Herria?

"Andaluzia serioški ezagutzen has dadila biziki nahi dugu. Andaluziaren kontzeptzio klasikoarekin benetan amai dadila gura dugu, egina den manipulapen folkloriko horrekin. Andaluziako herria, herri oso serioa dela jakin dadila gure helburua duzu; euskal herriarekin antzekotasun haundia daukala bere nortasuna defendatzeko eran.

Hemen andaluziar herria topikoen bidez baino ez da ezagutzen, eta horrek ez du zerikusirik herri andaluzarekin. Alderantziz ere berdin gertatzen da. Bi kultura hain ezberdin artean batasunezko puntu komun bat dagoela pentsatzen dut, hots, sentikortasuna.

Lagun asko ezagutu dugu hemen, eta sentsibilitate handia daukatela esaten ahal dugu, Euskal Herriaren parte direlarik... Nahiz eta guztiz diferentek izan, kideatasun handia dago bi kulturen artean.

Zoritxarrez ezin izan dugu Euskal Herriko beste inora joan. Donostiara joatea nahi genuen baina ez dugu harremanik lortu. Hona Bilbora hirugarren aldiz etorri gara. Lehenengo "Quejío" rekin Santiago Apostolen egon giñen, eta gero "Los Palos"ekin salesianoen ikastetxean "Akelarre" taldeak ekarrita.

Beste taldeek esaten ziguten Bilbon jendea ez zela teatroa joaten. Beraz bildurrez etorri ginen, jenderik izango ez genuela pentsatzen genuen. Eta ikusten duzunez, ostera gertatu da (Azken egunetan ezina zen

sarrerarik aurkitzea). Gure espektakuluek beti daukate egun bat edo bi motel apur bat jendeak ez dakielako edo, baina hirugarrenean berehala planu batetan jartzen dira. Egia, sorpresa atsegingarria izan dela guretzat antzokia egunerok betetzea, elkartasunezko txaloak entzutea, eta sentitzen den emotibitate moeta hori..."

## Andaluziako herriaren egoera antzerkian ikusten dugun bezain latza da?

"Oraindik latzagoa da. Hemen gutxienez ez dugu zifrarik ematen, eta andaluziar herriaz zifrak aipatzen direnean, hauek benetan dramatikoak dira.

## Iraultzaileak jotzen dituzue zeuen buruak?

"Iraultzaile sentitzea ez da kapritxozko gauza. Gurea iraultzaileak har daiteke, gauza batzu eztabaidatan jartzen ari garen neurrian, gu ez baikabiltza aurrekoan finkatutako teoriarik egiten. "Iraultza hitza, jadanik oso gastaturik dago; nik "eztabaida kultural" batetaz hitz egitea nahiago dut. Nire ustez hau zerbait zeharo politiko eta iraultzaile da. Kultur alternatiba bat planteatzea soilik. Berez, iraultzailea da beste erako teatroa egitea, ez diot hobe denik, diferentea baizik.

Izan liteke gai iraultzaile bat planteatzea, adibidez, baina antzerkia konbentzionala izatea. Niretzat iraultza beti "itxura"z hasten da. Zerbaiten itxura zalantzan ipintzen denean, horixe ba da, dagoeneko, eztabaida haundi bat planteiatzen duen ekintza oso trazezendentala".

"ANDALUCIA AMARGA" ("Andaluzia garratza"), oraingoan ekarri duten antzerkia, espektakulo desberdin bat da. Bertan hitzak garrantzi eskasa du, eta agertzen denean beti kantetan. Nagusitzen dena gorputz adierazpena da, aurpegiarena barne, musika, argia eta beste efektu batzu lagungarria dutelarik.

"Andalucía Amarga" k poema fisiko eta ozen bat besterik ez du izan nahi".

Hiru zati argiro nabaritzen dira. Lehenen-

goan Andaluzian daudenean gosea, ohiturak, erlijioa, zapalketa... Aste santuko eskena hemen sublime izatera iristen da' deskribagaitza da emakume horren aurpegiaren adierazgarritasuna.

Hirugarrenean dagoeneko atzerrian agertzen dira. Hemen garbi ikusten da gizonaren burruka "makina"ren kontra. Makina, noski, sistema osoaren ikurra.

Teatro era berriak denon gustukoak ez dira nonbait. Baina hala ere nik denoi gomendatuko nizueke joatea, ahal izanez gero, zeren antzerki hontan Andaluziaren errealitate larria alde batetik, eta bestetik garaia delako gure buruhertsia hori sentikortasun artistikora eta irudimenera irekitzeko. Hortan benetan txarto gaude eta.

"Opera honda" deitu diote "Andalucía amarga"ri osorik kantaturik izatean, halabaina amaitzerakoan errezitazio bat dago:

## AZKEN HITZAK

"Gazpatxoa jateko gatzik ez genuelako etorri ginen ezta ogia, olio gordinetan bustitzeko. Lurrak erreta utzi gintuen... etorri ginen eta herrietan bake hutsa. Tren ilun batetan, tortila usainez atzerantz mila bider begiraturik etorri ginen.

## "INTXITXU" TALDEA ANTZERKIGINTZAN JO TA KE

"Intxitxu" orain dela 11-12 urte sortu zen Oiartzunen, garai hartan sortzen ziren talde gehienak bezala, euskararen alde burruka egiteko. 30 edo 40ren bat gazte omen ziren. Zerbait antzerki lan eginak dituzte; haien artean: "Aralar", "Orria 778", "Deusetik izatera", "Karlstadt Kronika"...

Orain, beste taldeetan gertatu denez, lan-kideen kopurua gutxitu egin da, 7 edo 8 lagun direlarik. Beren emanaldiak edozein lekutan ematen dituztela diote, inolako oztoporik gabe; ala zinetan, ala herrietako plazetan... nonnahi. Erabiltzen duten eus-



# GAIK ANTZERKIA GAIK

kara gehienbat Oihartzun aldekoa izanik ere, "Oinarrizko euskara" esan diezaioketula adierazten digute. Nik, hala ere, haiei arrazoiak kendu barik ere, bestela esango nuke; hots, euskara zuzena izanik, ez dela hain erreza, hain oinarrizkoa, normala baizik.

"Guk 10-11 urte luzetan lan bat izan dugu: euskal teatro formal zaharrak ba direla Euskal Herriari esan nahi izatea. Orduan, pastorálatik ibili gaituk, beste egitura batzutatik, maskaradak eta abar. Orain, "Inexa" lan hontan baserri barruko giroa sortu dugu. Baserri barnea guretzat oso inportantea duk, bertan euskal sen handia dagoelako. Nik hau antzerki hau teatro unibertsal batekin konparatuz gero, teatro espontaneo delako esango niáke, momentuan sortzen de-

lako. Nik ez diat esango gure lan hau espontaneo denik, bide hortatik doa".

**Zein teatro moeta atseginen duzue, edo zein dago errotuen herriarengan?**

"Guretzat berdin zegok. Orain, herri eskaldunetan pastoralak emango niáke, pastoralak berriztua. Musika, bertsoak, kantuak... eta guzti hori dela eta, pastoralak giro hobea aurkituko lukela uste diat, alaiagoa delako edo. Dena dela, sakonagoa eta askoz indartsuagoa duk antzerki hau ("Inexa..."), oso dinamika bizia delako, espontaneo... Hau duk gehienbat ez antzoki batetan emateko, lagunen artean baizik. Inprobisatu, giro bat sortu... Hemengo espazio hutsa hontan (teatro batetan aurkitzen gara), eta nahaskeria indiferente batekin, nahiko jota ibiltzen gaituk. Azkenean hau zera duk, erdian jarri eta inguruan jendea, eta eman; hau da, baserri batetan ematen zuan bezala. Orain ez, 1950ean edo galdu zuan. Honek zutik irauten dik gerraurerarte".

Taldeak egindako azken lanak "Inexa..." dauka izena. Argumentua, Inkisizioaren denboretan gertátzen delarik, Euskal Herrian egiten ziren sorginen "ehiztaldi" etaz aritzen zaigu, eta honen bidez, nolabait emakumearen askatasunaren alde mintzaten.

Teatroko leihatilan eman zidaten orri argigarri batek dioenez, akelarreak mugimendu klandestino baten azalpena omen ziren. Sinismen zaharretan txertatutako mugimendua, erlijio kristauaren kontrako oposizioaren ondorio, eta, agian, ezkutukiago Euskal Herriko giza erakuntza ofizialaren kontra altxatu zen mugimendua. Trentoko aginduak herriska guztietara ailegatu ziren, gure literatura hasberria tintatu, eta behin betirako ezarri omen zuten erlijio patriarkal eta autoritario bat, emakumea gizonaren itzal

apala bezala azaltzen duen munduikuskerabat.

"Problema sozial bat erakusten dik' "Inexa..."k, emakume baten problematika. Hortaz esperientzia berria duk. Teatrora etortzen den jendeak drama bat dela pentsatzen dik. Eta hala duk, bai, bizitza drama; teatroa bizitzan finkatzen duk eta".

**Zelan ikusten duzue euskal teatroren egoera?**

"Orain egun gutxi, egia esan, nahiko ilun ikusten nian euskal teatroaren etorkizuna. Baina orain, zorionez, Labayerekin izan dugu elkar hizketa bat pertsonalki, eta bere pentsakera antzerkiari buruz oso ona duk, zeren eta lehendik euskal teatroaren infraestruktura bat osatu behar dela pentsatzen dik, taldeak sortu behar direla, kementasun bat sortu. Gero, horren ondoren profesionaltasun bat. Hori niretzat berri onenetakoa duk. Datorren euskal telebista delako hortan ere ba dagoela euskal antzerkirako lekua ematen dik nonbait.

**Hala dadila, falta egiten zaigu eta!**

I.A.



## INTXITXU TALDEA

"Erljio zuzentasunaren aitzakiaz, Europa osoan egiten den SORGIN-ARRAPATZEAK, ekonomi eta politika aldetiko asmo ilun batzu ezkututzen zituén. Euskal Herrian ere eragin handia izan eban honék, eta sorginen aurkako erasoak ugaritu egin ziren".





# GAIK MUSIKA GAIK

## LEONARD COHEN DONOSTIAN:

### Musika Matizez beteriko kontzertu bat.

Gau hartako melodia, musika moeta batek gure idealak eta gure neurosis guztiak lagundu zituen urteetako oroipen eta bizipen egin zen.

Une honetan orduko zenbait abeslarien izena aipatzen hasia, tintontzian baten bat uztea izanen litzateke, baina ezin dugu ahaztu Leonard Cohen horietako bat zenik.

Erlatibozko ixiltasun urte batzuk igaro ondoren (diska gehiago argitaratu du, baina hauek ez dute 70. urteetako hasieran izan zuten harreraz gozatu) 45 urteko kanadiar honek sentikortasun eta ikus-entzunlegoari eskaintzaz betetako kontzertu bat eskaini zigun (eskupeko 5 abestiek ederki frogatzen dute berak eta denon artean lortu genuen espektakuluaren kalitatea).

Jende askok errezital poetiko bat espetu zuten, baina berak musika matizez beteriko kontzertu bat eskeini zigun, bakar guztietan eta talde bezala nabarmentzen ziren musiko zoragarri batzuen laguntzaz.

Leonard Cohen kuttun, goibel eta alai bazaltzen zen.

Bere abestiek muga guztiak apurtzen zituen (hortik datorkie kritikoei bere musika sailkatzeko zailtasuna), itxaropena, naitasuna eta bakardadea aldarrikatuz.

Ezin badugu alde batetik Leonard

Cohen-en jatorri judua ahaztu, bestetik bere filosofiak 2 korrontetik edan duela kontutan hartu behar dugu: tradizio biblikoa bata, existenzialista bestea, baina hori dena bere buruan zentratuz. Horregatik bera, pertsona kontraesankor batetan bihurtu da, ideologiz eta musikaz.

Bere kontraesanak ("Maitasun eta gorrotoko abestiek") eguneroko bizitzan murgiltzen dira.

Begiak itxiaz, bere abestietan sartuz, sentikortasunaz beteriko beste errealitate batetik ulertzen saiatu behar genuke, hots, nolaz abes dezaken berak une batean "The partisan" (alemandarren aurka altxatu ziren frantzes gudarien omenez egindako abestia), eta gero Sinai Mendian, israeldar gudariei eskeinia egindako abesti bat: "Lover, lover, lover", edo zergatik "Gizon eta emakumearen artean, behartsua eta aberatsaren artean eta burruka dagoela eta ez dagoela esaten dutenen artean burruka bat dago" —ela berak esan arren, Leonard Cohen, dogmatismo guztietatik urruntzen den, hainbat neurosietatik bastertuz, zeren eta berak dionez "Nire moduan, alanbrean txori bat bezain libre izaten saiatu naiz".

Agian bere "Songs from the room" ez dira batzuetan besteen presiotik ihes eta guregan ixteko behar dugun egoeraren erremedioa bestetik izango, munduko ze-

remonia zahar honetan bizirik sentitzeko sentikortasun bat behar dugulako oraindik (New skin for the old ceremony). Bere lan osoa bezain kontraesankorrek sentituz, hala ere bere musikarengatik eta igandeko kontzertuarengatik Leonard Cohen miresten jarraituko dugu.

Xabier Portugal



## MIKEL LABOA

Duela aste batzuk kaleratu da Mikel Laboaren azkenengo diska. Beraz Durangoko Azoka baino aste bete lehenago kalean ikusteko ahala izan genuen.

Batzu aspalditik itxarotten genuen, kasik urte bi. Ia urte bete igaro du, Klean azalduko zela susmoa entzun zenetik Abenduaren 6-7-Barte.



"Bi urtetako lanaren ondorioa da 'laubost' hau. Eta bertan jarraitzen ditut hasieran buruturiko hiru zutabeek; abesti herrikoa, eguneroko olerki musikatuak eta Lekeitaldean gehien ezaguturiko-musik-esperimentalak", esaten digu Mikel Laboak.

Beraz berri-nabariena "Lekeitio" deituriko saio hoiak ditugu. Hotsak ikaragarriko indarra du euskaraz; eta euskal linguistikultura ondo ezagutu ondoren lortzen diren sentu-efetu hoiak. Bere meritua zaratekin, komunikatzen, esaten lortzean, jakitean datza. Are gehiago jendeari lotzen zaio bere hots, soinu eta zaraten bidez Orreagan ari-tutako Erroldan-en hiletarena, diskaiko gai obeagoagoan bihurturik...

### ATZO HASI ZEN

Mikel Laboa 1934. urtean Donostian jaioa da. Barcelona Medikuntza ikasten dagoela Ataulpa Yupanqui ezagutzen du, eta harekin herriarekiko nortasuna bere ohi-turetan —noski, hauen artean abestia dago— datzadala ohartzen da.

"Berreterecher kanthoria" ikasi zuten lehenengo abestia da, eta 1963. urtean Zaragozan Osasunak Zaragoza-Fubol-klubaren aurka jekutzen zuten egunean, Argensola Antzokian eman zuten lehenengo kantaldia. Jaialdia "Hogar Navarro" deritzan taldeak eraturik.

Garai hartan erreordinatu ziren bere lehenengo diskak, singleak alegia. Lehenengo biak "Goiztiri"k argitaratu zituen, eta ondorengo guztiak OTS-Herri Gogoa, azken hau ezik —Xoxoak atera ba du—. Oro-tara bere ekoizpena lau single eta bikoitz dituen LP bitan banatzen da.

Abesti onenen artean "Haika mutil", "Txori txori", "Zaude lasai", "Berreterecher kanthoria", "Xori erresiñula", "Baba, biga, higa", eta azkenik "Gernika" dugu bere lan oberena.

Mikel egile handia dugu, ere berean gure herriko musikaren ikertzaile nekegabea.

Sabin Oregi



# SOLDADUTZA / NORTASUNAREN UKAPENA

Urtero-urtero hogei edo urtetako gazteak beren egunoroko aktibitatek atereak izaten dira eta armada deituriko makinatza horren hatzapparretan erortzen dira. Hortik ez dago ihes egiterik, dena kontrolaturik baitago; atzerrira ihes egitea ez bada. Euskaldunok ere ezin dezakegu "libre" gineneko denboretara jo, gerra karlistak galtzeaz geure zuzenbide guztiak galdu genituen. Eta "santa cruzada" delakoan badaezpada zeintzu diren Euskal Herriaren zuzenbideak gogoerazi zitzaigun. Orain urtero, egunero birgogoerazten zaigu.

"Urtebete pasa eta kito". Horixe da entzuten den esaldi magikoa. Eta zergatik urtebete hori (edo gehiago) etxetik urrun pasatu behar? Galde diezaiegun geure buruei: Benetan denboraldi horretan zehar prestakuntza militar, hau da, defentsazko, bat ematen al zaio gazteari? Beharrezkoa al da hainbeste jende gaur eguneko armada batetan? Ala besterik al dago?

Erreklutaketak zerikusi haundia dauka armadaren funtzio ideologikoarekin. Gaur eguneko defentsazko metodoekin armadek oso unitate espezialdutan zentratu behar dute beren potentziala eta baliabide tekniko gero eta sofistikatuagoak erabiliz. Armada tradizionala historiako liburuen orrietan geratu da eta gizona ez da jadanik (esaten zaigunaren kontra) parterik garrantzitsuena, ez eta guttiago ere, guda ba-

tetan. Armadaren teknikazio-gradua hobetuz doan heinean, beharrezko soldadu-kopurua txikiagoa izango da. Soldadu askoren lekuan arma sofistikatuak eta teknika berriak.

Espainol armadaren potentzial ofentsiboa ere, berehalaxeko parte-hartzerako unitateetan oinarritzen da, eta unitate hauek profesionalek nahiz boluntarioek betetzen dituzte batez ere. Zein da, bada, soldadutzaren papera?

Soldadutzak armadaren barnean ideologiazko helburu bat dauka batez ere, ez dago ezarriarik armada indartzeko eta berari operatibitate gehiago emateko. Ideologiaren kontua da bereberki.

C.I.R. batetara joan bezain fite, gaztea desgizondurik aurkituko da eta beste nortasuna ukatua ikusiko du. "Soldadutzan obeitu egin behar da, besterik ez"; "erreklutak ez du pentsatzen, dena eginik ematen zaio"; Macho izan behar"; "potroiak, potroiak eduki behar... "Holakoxea da soldadutzan erabiltzen den lengoia. Matxista eta errepresiboa. Baina ez, gizabanakoaren "hezkuntza" ez da soldadutza hasten. Gizona mundura jaiotzen dan momentutik beretik, gizarte burjes honek prestatzen digun makinerian erortzen da. Hezkuntza atzerakoi eta paternalista-matxista jasoko dugu familian eta eskolan, soldadutza hesiaren az-

ken harria izanik. Gaztea "inkonformisten" eta "hezgaitzen" den momentuan, odolbizien den momentuan —eta, beraz, arrisku bat inkonformismo, hezgaiztasun eta odolbizitasun horiek bideratzen ez badira—, eskola desgizonatzaile horretan sartua izango da, bere inguru-girotik aldendua. Lengoia berri bat sarreraziko da gazte honen garunean. Oihu, kolpe, mehatxu eta kastiguen bidez disziplina eta jerarkiapen egoten ohituko da gaztea. Agindu bat berehalaxe obeditua izango da. Ez dago galderarik. Ez dago "zergatik?" itauntzerik. Obeditu bakarrik. Kunplitzea soil-soilik.

Hor egongo da ere apaiza bere diskurtsoarekin, fede "erlijiozko-militarra" sarrerazi nahiz. Gaztea agindupetu behar da, gizartearen —gizarte honek eskatzen duen bezala— integra dadin gizonak gizarte-legeak ezagutu behar ditu.

"Aberriaren defentsa" da armadaren helburua, eskaini behar diogu geure bihotza, geure bizitza ("azken odol tanta barne beharrezko balitz"). Zalantza guztiak argitzen dituen argudioa da hori, horretaraxe heldurik ezin itaunketa gehiago egin, ezin duda-mudatan egon. Aberria da azken helburu sekratua; Galdera hauxe: "zein da zure aberria?"

Karlos Santisteban





## BOTIKAK, MOMIAK ETA BESTE



**Esportatzaileek, txiro eta esklabu hilberrien gorpuak hartu, betuna xiringatu, eta eguzkitan lehortzen bi hilabete ukan ondoren, faraonen edozein dinastiatako momiak balira bezala pakeztatzen eta untziratzen zituzten Europarantz.**

Jobietar Batasuneko farmakopean oraino badute zentzurik botika eta botikari arrun-  
ek. Farmazilariak produktuak saltzeaz gain, badituzte beren dendetan zenbait sen-  
lagarri prestatzen. Eta nahiz eta egungo  
farmakopean kimika nagusi izan, gauza na-  
uralez prestatutako produktuek  
—landareez, beren sustraiez, etab— kon-  
sumatzaileen artean harrera ona eta aski  
jedatua dute.

Hauetariko bat gutxienez gureganaino  
ritsi da. "Mumia" izenarekin ezagutzen da.  
Eta nola edo hala honi dagozkion bitxikeria  
jatzu kondatu nahi genizkizueke.

Substantzia hau solidoa, beltza eta gali-  
pot itxurakoa da, eta beraren propietateak  
a miresgarriak. Ez du zehazki ezer senda-  
zen, baina batera pixka bat dena omen du  
satzen. Ongitasun orokor bat sorterazten  
omen du, eta bai —batzuren ustez— joezi-  
aren (inpotentzia sexuala) kontrako kon-  
onbide ona omen da.

Bestalde, eta produktu berbera den ala ez  
akin gabe, baina izen berberarekin, beste  
endagarri bat aurki dezakegu Farmaziaren  
istorian. Erdi Aroan eta Errenaisantzan  
ehar Europa osoan eurrez (1) erabili ohi ze-  
ia.

Espanian bertan, urrunago joan gabe,  
737.urtean oraindik, Felix Paredes jaun  
loktorearen "Palæstra Pharmaceutica" ize-  
leko liburuan, aipamen hau aurki zitekeen:  
"Mumia, substantzia beltz bat da, gogorra  
eta erretxinatsua, zeinek baltsamo eta lurri-  
iekin gordetako gorpuetan bait du bere ja-  
orria".

Benetan izugarria! Garai hartan momien  
haragiarekin hautsak, ukenduak eta olioak  
giten ziren. Eta hain zuzen ere "mumiaren  
hautsa" zaurien ixtean errumedio bikain-  
zat zeukaten.

Momietatik ateratako betunak eta nitroek  
ere odolaren zirkulazioa berrezartzen omen  
uten.


Sendagarri funebre honen erabilera Ale-  
jandriako mediku judu batek hasi zuen  
1300.urtean, eta XVIII.mendearen azkenal-  
dirarte iraun zuen.

Hain handia izan zen "mumia"ren kon-  
tsumoa Europan, ezen Alejandriako populua  
XVI eta XVII.mendeetan, nekropoli  
zaharrak zakuratzten, saiatu zela. Modu ho-  
netara, hilobi zaharretako momia asko desa-  
gertu zen.

Lapurre, merkatarri juduei saldu, eta  
hauek Europako bazkideei berehala bidaltzen  
zieten, non osasunerako hain preziatua zen  
produktu honek eskari handia bait zuen.

Baina alde batetik, zakurapen makabro  
honek Alexandria eta ingurutako momia  
guztiak laster agortu zituelako, eta bestetik  
agintariak abusu haien kontra ediktu go-  
gorrak atera zituztelako, ekoipen harrigarri  
honek geldiune bat ezagutu zuen.

Halere, eta giza irudimena mugagabea



denez, laster agertu zen industria honen ba-  
riante bitxi bat, bestea bezain aparta, mo-  
mia faltsuak fabrikatzea hain zuzen ere.

Esportatzaileek, txiro eta esklabu hil-  
berrien gorpuak hartu, betuna xiringatu,  
eta eguzkitan lehortzen bi hilabete ukan on-  
doren, faraonen edozein dinastiatako mo-  
miak balira bezala pakeztatzen eta untzira-  
tzen zituzten Europarantz.

Baina denborarekin, sendagarri honega-  
nako konfidantza ere bukatuz joan zen. Ja-  
danik XVI. mendetik hasi ziren "mumia" ho-  
nen erabilerean ongarritasunaren ongarrir-  
tasunaren kontrako eritziak, eta beraren  
propietateen gutxiespenak ere. Eta bide ho-  
netan, Ambroise Paré zirujau famatuak ze-  
ra zioen: "mumiaren haragiak, soilik ur-  
daileko mina, gomituak eta ahoko usain  
txarra dakartza".

Nolanahi ere den, eta nahiz eta Paredes  
jaunak XVIII.mendearen eginiko senda-  
garriaren deskribapena eta gurea berdin  
antzekoak izan, ez dugu pentsatu nahi gur-  
ko "mumia"k eta aintzinakoak zerikusirik  
dutenik, izenez kanpo.

Bestalde eta argitasun gisa, jakizue mo-  
mia izena arabiar "mumiya"tik datorrela,  
eta betuna edo asfaltoa adierazten duela.  
Ezaguna denez aintzinako egyptiarrek betu-  
na erabiltzen zuten oparoki momiak presta-  
tzean (faltsutzaileek ere) haragiaren ustel-  
tzea geldierazteko. Eta honela betunak, bere  
izena pasatu zien gorpu famatu haiei, mu-  
sulmanen etorreran noski.

Guk ezagutzen dugun "mumia"k —botika  
modura gaur egun erabiltzen denak— ere  
betun itxura du, lehen aipatu dugu bezala.

Eta beharbada, azken argitasun honi be-  
giratuz bilatu beharko dugu bi sendagarri  
hauen arteko erlazioa. Horrela nahiago ge-  
nuke badaezpada ere.

Antton Azkargorta

1) asko, ugari.



# (HISTORIA ZATI BAT) EGUN MINGOTSAK

Danborren tarrapataren ondoren, Napoleon "Zaldi Zuri"aren patioan jaitsi zen, Fointenebleau-ko gortean...

—Enperadorea!— oihu egin zuen bere ahots burrunbatsuz Bertrand jeneralak.

Baina honako honetantxe enperadorea ez zen borrokaldi berri batetarako suzmintzatzera etorri izan, agurtzera baizik.

—Nire goardia zaharraren soldaduok... Nire agurra ematera etorri nauzue... Ezin zaituztet denok musukatu... Zuen buruzagia, zuen bandera musukatuko ditut.

Filetan, grognards-ek, hainbeste eta hainbeste borrokatan arituak eta eguzkiak kiskalita, ezin eutsi zioten negar egiteari. Napoleon bera, bere sentimenduak momenturik zailenetan ere disimulatzea lortu izan zuena, bihotz hunkiturik gertatu zen; berarekin inperio bat eraiki zuten gizonengandik urruntzea, ordura arte experimentatu zuen guztiaren ezberdina zen.

Ondoren, Elba irlarako bidea hartu zuen, hark berak "Sancho Panza-ren Irla" izenaz izendatu zuena. Lyon-aino, enperadorea goratua eta errespetuz tratatua izan zen, baina la-guntalde Provenza-n sartu zenean, monar-

kiarekiko fidel iraun iraun izan zuen herria, harrera aldatu egin zen. Irainak eta mehatxuak nondiknahi zetozen. Napoleon beldur izan zen. Beti jendeteriaren beldur izana zen; herabeta-sun gaindigaizta sentierazten zion.

Bertrand jeneralengana zen:

—Ziur gaudela hemen al deritzozu?

—Bai horixe, maiestate... Gainera, ba daukagu eskolta.

Herrixka bat zeharkatzean, Napoleonek lastagixon bat ikusi zuen korda batetik zintzilik zegoela eta odolez estalirik. Hurbilagotu zenean, lastagixon hura beraren karrikatura barregarri bat zela konturatu zen izuikaraturik. Europako menderatzailearen aurpegia izuikaraz zurbildu zen. Bertrand-en kontra instintiboki hestutzen zen bitartean.

—Ene Bertrand ona, utz nazazu irten hemendik... Utz neure burua mozorrozta nazala...

—Gura dezazun bezala, maiestate... Baina ziur nago beharrezko ez dena.

Napoleon mozorroztatu egin zen eta zenbait ordu galopatu zuen konboiaren aurrean, bati-doréz jantzirik. Halaber, maina hau ere ez zen

nahikoa izan beldurra gainditzeko. Berriro er jeneralengana zen:

—Ekardazu austriar uniforme bat... Seguruago egongo naiz. Uniformea aurkitu zute eta frantsesen enperadoreak jantzi egin zuen Gero longain bat eskatu zuen eta errusiara zed in nahi izan zuen, nor zen inork susma ez zed zan. Boillidou-n bere arreba Paulina-rekin to patu zen, bere bila zettorrela. Halakoxe modu jantzirik ikusi zuenean, negarzutinka hasi zen

—Maiestate... Napoleon, nik ez zaitut seku la besarkatuko jantzi horiek eraman ditzazu bitartean.

—Barka nazazu, Paulina, jendeteriaren erru izan da... Nahiago dut gudaurrean egotea su garretan, gizataldeen oihuak baino...

Albo batetara jaurtiki zituen zeramatza janzkiak eta bereak jantzi zituen berriz, lagur taldea berrito ibiltzen hasi zenean kontserbatu ere.

la ezina dirudi Napoleonek, urtebete igar gabe soldaduen balei atzea emango ez ziena holakoxe modu hain barregarri obratzea; g zoz guztiek dituzte beren ahultasunak baina

Karios Santisteban

**BANCO DE BILBAO**  
**nire soldatak**  
**lan egiten du.**  
**Bitartean ni atsedenean.**



Orain hileroko soldatetik abantail haundiagoak lortu ahal dituzu.

Bakar bakarrik zera adierazi behar diguzu, alegia, hemendik aurrera zure lantsaria BILBO BANKUko kontu ireki edo Aurrezki libreta baten bidez eskuratu nahi duzula.

Honela, zure soldata egunero lanean arituko da interesak ekoiztuz eta arrisku guztietatik babesturik.

Zure diruaren administrazioa emanez gero, lantsaria BILBO BANKUaren bidez eskuratu, beste

abantail garrantzitsu batzu eskainiko dizkizu.

Adibidez: Zuk zeuk inprima ahal dituzu bileteak, eskudirurik erabiltzeko beharrianik gabe. Bestalde zure egokierara luzatu ahal dituzu zure erosketen ordainketak, Kreditu Txartela erabiliz. Eta dirua behar baldin baduzu nahiz gaez nahiz egunez, 24 Ordu Bankuek estualdietatik aterako zaituzte.

Zatoz guregana eta mintzatuko gara. Bost minututan lortu ahal dituzu abantail haundiagoak zure soldatetik.

Eskura



delakotik  
zure soldata

**BANCO DE BILBAO**



## (II) AMETSAREN HEGALALDIA

Kaixo Bihotz jauna! Hemendik-hortik nabileta probetxatuz zu ikustera etorria nauzu. Ba lakusat ikusi, arras lanpeturik zaudela, hots..., beti bezalaxe; jo eta ke, su eta gar. Ez duzu ni-ekin solastatzeko atsedenditxoren bat orlea?

Azken gora beherak, gure existentziaren iza-asuna, plasmaren inportantzia, odolbideen aiuketa..., zertaz nahiago duzu?

Barka! Barka nazazu jauna!, ez nuen inolako smurik, ba dakizu ametsok oso nahasiak gara eta... orotaz ahazten gara.

Eta zer da edaten duzuna? Zergatik orain aurtiki? Ulertuko duzula deritzot, ezen ez bainago hauetan egona. Askok uste du trinkorinkoak gara, baina oso bestelakoa duzu gaitia. Anitzetan, oraindik hazi, erdiak izaten ga-

Eta guretako asko hor barruan omen dago!, ori ito beharra! Amets bat odoljale! Hara, hau ure artxiborako elkarrizketa bat duzu; ezin de-akezu gezurrik egin, eta gainera, ez zaizu ko-teni zure gerorako. Kondairaren altzoan zi-narkuak ez du baliorik, dena kontra erortzen ga:

Lehenengo galdera: entelekiaren sektakoa gaitugu?

Azkena: erakuntza ontogenikoa izan al du?

Bai, dagoeneko dena argixeago dago. ipirri-zaparra ibili beharrean askozaz eman-orragoa da gauzen iraganbideetatik joatea. Ez dago galtzerik. Zer gal zitekeen dena dela?

Izugarri poztu naiz zu ezaguteaz, ziñez. Eta a trukutzen duzun lanbidea! Bestela sekulatu-naren jopu ikusten zaitut zure nagusiaren eriotza arte.

Birikaren ordezkaritza odolbide horretatik urrerantz, ez da?

Bai, hau enparantza politta! Udazkena ote ilegatu?

Ai! ai!, zer dela eta horrelatan hartzen auzula? Eten pixkat putzaldi horiek! edo eta, gin pausatuxeagoak!

Zuk eta Bihotz jaunak etorkizun berbera du-ue, ez eta ametsik egin!

ertarako bizi orduan? Ala ez duzue bizi gura?

Noski, airea guztiz inportantea da eta zure rantzunbeharraren handitasuna ezaguna du-lu, baina zergatik beste anitzek uzten du eta oztasunaren petik hasi?

A beldurra! Denok haren itzalen izuor.

Zuri zer axola zelula eta globuxkak? Non ustun dituzun ondasunak?

Horrela ez dago ezer aldatzerik, ezin dugu

akordiorik egin.

Europar ere lanuztea zilegi da!

Erlojua kontsultatu berria dut eta denbora iraungiz doakit, eta oraino ikusteke —senti barik— gehjena. Planteiamendu ongixe planifi-katu bat behar dut..., baina nola honelatan ametsa? Agian haragi nire dudak? Hau akabu-koa da! kaixo, zer moduz bihurri lotsagabea? Beti orotaz trufatzen! Baina ni ez nauzu nor-nahi, guztiz errespeta garria nauzu. Eta ba dakit betetazi neureak.

Esaidazu, arren, zer senti izaten duzu maite-minduen ahoetan?

Zer beste mihiren batekin ukitu dagizunean? Hain da sentzazio goxoa? Eta zergatik hain hospatsu bihotza?

A!, bizi-lege! Zuek egin lantxoia eta besteok hartu uzta. Ez, ez zarete epikuriarrak!

Orain oroitzen naiz idazlearen drama hartaz. Ez zuen hartu kontutan bihotza eta bakarrik hilek irakurri omen zioten. Eta horrelatan ez da-go jarraitzerik. Ez dugu maite egia. Eta egitasu-nak zuzentzen dizkigu urratsak.

Begira zu: non geudeke —eta zer ginatete— ametsok errealitatearen faltaz?

Mailua iltzera bide doa, baina egia ametseta-ra, eta ametsa zertzearen goseti...

Ez zaitut aspertu gura ordea, eta ba noa ez-painen aldera!

Zer dago berri hemendik musulari lagunok?

Triste eta zurbil ikusten zaituztet. Ez duzue dastatu maitasun beroa?

A!, horixe samina (saminagorik badago), gaixotuta zaudete eta ezin egurastera irten! Baina, deitu maitasun-medikuari! Ez dizue so-sik hartuko eta kenduko bai, goibelaldia.

Garaitia maiteminduok duzue!

Nik neuk, ba ditut ukan, anitz eskarmentu horretaz, eta orain oso naiz sentigabea.

Zer edo zer —nor edo nor— maiteago duzu-nean... haiduru iritsiko zaizu ondikoen semea.

Eta gero iluntasunak iluntasun... beltzeko-aren aita aurkitu arte.

Eta nahiz eta borrokan garaile; nola konpon-du hizki bustiak? Blai-blai itxasoa dago...

Zuen jokaera zintzo-zintzoa aldatu beharre-an zaudete. Ez izan beldur inori!

Musukatu —dastatu— ere bizia bestea! Zi-murdura horiek ezereztu! Har zorientasun-jario!

Ez zarete damutuko. Ez duzue damurik ukango.

Ez, ez naiz hain odolberoa, baina apodera-

tua nago hauetan! Nola, esnatzeke, loak har-tu?

Benetan durdizatuta zaudete, eta ez dizuet nahi negarraldirik eragotzi, ez dago poten bat niretzat ordea?

Hurrengo arte eta ondu gaitza!

Oi!, hauek haitzulotxo fabulosak! Noizdanik zure menpean dituzu? Egona dago antropolo-goa hauetan? Euskal arnasa bere garbitasun osoan! Malurteko aireak bizirik!

Eta ametsok hain bizi aldakorra...

Baina zabor pilaketa horiek..., gure arbaso-en arnasa galduak? Ba liteke birpiztu gaur ber-tan..., baina dena aldatuz doa, ezindugu atze-rantz itzuli. Nire anaiaren bat mezulari bizi zen, eta aurrerakuntzaren kontrakoa izanik —eta berori eragozteko— mezu guztiak irensten zi-tuen; baina kalte egin zioten eta larri-larritan hil.

Ametsok aurrerapenak suntsituta gara, ez dagokigu askotxo iraun. Eta bizi nahi dugu! Bi-zi behar dugu!

Zuek ere ez zarete ametsaren oso adiskide, bestela itxura barregarriagorik zenukete.

Pentsa nolakoak zinatekete, sudurtxo hori eduki beharrean, sudur luze-fin-kiribilatu bate-kin. Ez dozue atsegin? Eboluzioa zertan dago? Ez litzateke praktikoagoa? Eta estetikoagoa? Nik abantaila asko ikusten diot eta, batez ere, samurtasuna... Eskuak beren zereginetan daudenean; nola harraskatu ideiak? Eta dan-tzaldiren batetan bakarrik egonki, norekin ele-ketan egin? Eta euria ari badu zelan oratu ater-pe?

Horixe duzue irtenbide! Alda ezazue zuen itxura!

Ezin dezakezue? Hasi, hasi!; natura adimen-tsu da! Baina askotan da nagi eta uzkur. Ira-tzarri beharra zuotan! Eta ez utzi ezer biharko, eboluzioak erlojurik ez du eta! Dena zaio haien labor! Beti gazte eta indartsu. Baleki zer duen aurretik! Ostera, frankotan konformakor izan behar.

Arestian, sagar bar zuritzen nengoela, kon-turatu nintzen horretaz. Jan egin nuen magin-txa, eta botatu mamia; magintxatik arbola bat goratu zen eta urdailean min-mina.

Denok izango bagina adar, zertan orduan sustraia?

Halarik ere igurikazu pixkat. Mundu barik ez da —inola ere ez— ametsik.

Eta non edo non iraungo baldin badugu, to-kirik tuki-lekurik leku, estakuruaren jabe behar dugu izan. Zer gara bada atxakia baizik?

Pairakorrok lurpean izango duzue muga...



# GABONETAKO AGERKUNDEA

Ama! Ama!

Begira elur malutak kulunkari haien beheranzko bidean. Ze eder eta ze ikusgarri! Ezari-ezarian. Taigabe. Egingo nuke ederragorik ezetz.

Baina gure etxetxoko leihotxoak txiki-kegi zaizkigu kanpoko osotasuna ikusi ahal izateko. Zergatik ez ditugu ormak botatzen?

Ama! Ama!

Orain bai ikusten! Elur zuri-zuri daukagu gurekin. A!, ametsak itorik nagoo!...

"Kaixo Xabierto!, ameslarien hegaldia zuzentzen (bideratzen) dituenak nauk eta gaur hirekin diat lekua, hemen nahi dezaana, guztia, haizeetara jaurtiki ahal duk.

Guzti-guztia?

— Bai horixe! Güztiz orotasuna! Ikus, ikus...

Oi! Oi! Hauek lurralde atseginak, non bizi dateke hemen? Harri horretan zer edo zertxo dakusak; hemengo bizilagunen mezurik?

"EUSKALDUNA HILIK DAGO.  
HEMEN HAREN ARNASA..."

Eta hau da atsegina? Arras beldurtzen nau inskripzio horrek, baina gezurretan ari da, noski. Noski? Gainera hor ez dago inolako datarik ez izenpeturik, noizdanik edo noizko ote da?

Euskaldunon etsairen baten hizki bustiak, zentzugabekoak, izango dira bakarrik. Etsai asko izan dugu historian. Pozarren irakurriko luke hori gure Aymeric Picaud kutunak; "gens barbara libidinosoa eta..." berez suntsituko da, basoak amaituz doaz, ez die bizilekurik geratzen. Eta, beno, behinik behin arnasa omen daukagu... gaitz erdi! Non zaitut arnasa hori?

Ja! Ja! Ja!

Irrikor?; izartean kilikor?

— Zure beldurrak eragiten nau; zure beldurrak eta egia haizatzeko zure ahaleginek. Baina horrelatan ez duzu deusik ere ez aldatuko. Patuak eginik ditu be-

reak. Herriak oro daude denboraren balantzan. Gutxien pisatzen duena... ezer ezerantz... Eta zu, nor zara? Suertatze nahikorik izan dut dagoeneko eta oraino beltz-ilunetan... Ezin diezadakezu zeure burua agertu?

Bai horixe, barre eragiten didazu-norrek! Egiasamin jauna zurekin eta zure zerbitzurako.

Biziki pozten naiz orain, jadanik pixkat desmoralizatuxerik nengoen. Lehenik oro ikusteko posibilitatea eskaini zait, gero harri misterioitsu hura, eta orain... zurekin. Orduan, Egiasamin hori, zein da naraman bidea?

— Egia biluzien mundutxoa da bideratzen zaituena, ikusten baduzu poztasunik, lasterka ailegatuko zaizu belatzen itzala; edaten baduzu urik, behazun-edari sentiko duzu eztarrian.

Egiasamin-en hitzak zer edo zertzat baldin badauzkazu... sinets ezazu, bai. Baina ez izan ardura horregatik, nik uzkur-uzkur, ostera, diraut!

A! bizi enea. Zergatik gara hain indargabeak gizakiok? Nik bestelako gauzak nahi nituzke ikusi... Ez joan oraino Egiasamin! Esaidazu, otoi, zuk ez duzu seniderik?

— Bai, hortik dabil indarge bat. Presentatuko dizut guratan bazaude. Egiasamur deritzo.

Agur t'erditxo Egiasamur!

Baita hiri ere.

Ba..., erdi galdurik nabil hemendik eta orain artio haize-horbela besterik ez dut aurkitu. Zuk ahots eztsua omen duzu.

— Ni oso nauk alaitsu, farrazole eta baikorra! Inskripzio hori..., kasurik ez! Alaitasuna behar diagu bakarrik, bizia alaia baita! Euskalduna hilik?, hori zozokeriaren haundia! Zer haut hi bada? Ez ote dizkiagu Axular, Moguel eta gainerako apaiztegia? Eta zenbat doktorego tesi ez dik egin nik dakidan zenbat hizkuntzalarik? Euskera baldin badago euskalduna ere bai. Trankill!

Ez sinets! Ez sinets!, Egiasamin zurekin. Euskara ez da bakarria, hor dago erdera! Eta erdera lagun on-indartsuak izan ditu kondairan. 1839.a, 1876.a,

1936.a, 1978.aren eta 1979.aren Urria... erderaren datak dira; erderaren jabeen menpekotasun-kateak dakarzkigutena.

— Ze katea eta ze arraiol Pozik, pozik bizi behar. Euskara oso duk politta. Urrezko kaxa bat egingo zioagui!

...Zalaparta eskerga sortu didate; zeinek arrazoi! Izan ere egia gura badugu, hotz pentsatzea beharrezkotzat daukagu. Eta gainera bihotza, maitasuna, txoriñoak, hibaia, gorputz-deliziak eta anitz abar gehiago ahaztu dituzte. Zer dela eta euskaraz soil-soilik? Hain da garrantzizkoa?

Egia esan, odolak oxigenatua izan behar du, haizeak tenperatura-aldaketak nahitaez eta usoak hegoak guztiz beharrezko. Euskaldunok euskera gabe odolbatutagun sapa-usoaren eskeletua?..."

Ama! Amaaaaaaaaaa!...

Ez ditut maite elur malutak, gezurtiak dira oso! Garbi-garbiak dirudite baina haien uretan sartuz gero... dena iluntasuna!

Eta zergatik elurra gurekin! ez dut gura! Abendua ez dut atsegin. Eta luzetan elurreztatuko dira goikaldeak... muina beti bezalaxe... Noiz ekarriko digute gabonek behar dugun gabonsaria?

"Gabonetako arbola tantaia ez da adarkatuko gugan zabalzen duzun mundu-pozik?

Gabon gau fir-firkari nahi genuke gabonsubilaren sugarrek gauaren argian beren gabon kantak xuxurla ditzaten.

Gabonetako itxurako anaitasuna ez dugu zure itzala nahi usain usteldu hitz zantarra.

Gabon zaharra izan zahar betiko! eta ekar urteberrian euskerak behar-behar duen aterpe!

Gabon!

Karlos Santisteban



# GAIK ERITZIAK GAIK

## FERNANDO SAVATER ETA LASAITASUNA

**“Una buena dosis de relajamiento (con perdón de los moralistas de uno y otro signo) no ha de venir nada mal”** hala eskatzen du Savaterrek eta beste 33 intelektualek argitaratu ohizko agiri batetan; guztion (Euskal Herriaren) lasaitasuna sendagarritzat proposatuz.

Egunen batetan, herri guztiak gurutzabide batetara iristen dira, bide gurutzatu batetara. Oztopoz eta sakrifizioz beteriko urte luze asko, hor zehar ibiltzen, buruan helburu fixo bat dutelarik, hainbat lagun —ezin konda daitezke— hilik geratu dira karkaba askotan. Beste batzuek oso urrun daude, gartzelan, atzerrian, beste asko martxan abiatu ziren artean. Aspaldian, tabuez, mitoz eta ilusio kolektiboez sorturiko belaunaldi oso bat jarri zen martxan. Eta mito bat eraiki zuten. Herria osatzearen mito kolektiboa. Beren izaerari, gure bizitzari, denon izaiteari arrazoi bat eman zioten, zeregina, bilakapen historiko bat. Eta mito asko erori ziren gungandik. Gure kanpai dorreetako hotsa ez zen jadanik zerutierra. Ordena, desordena guretzat, eta ordezkari politiko eta militarren ukiezintasuna gero eta hurbilago, hilkorrago bilakatu zen. Cain bezala, lurra nahi dugulako, hiltzen eta erahiltzen ikasi genuen, beste guzti haiek bezala.

Eta gurutzabide batetara iritsi gara eta ba dirudi ez dela hain erraz gainean zehar iragatea. Mito asko eraitsi dugu eta gurea eraiki. Mundu honetan gizateriak mitoak behar ditu bizitzeko eta mitorik ala sinesmenik ez badu ez da ezer. Urte askotan bururatu dugu gure mitoaren alde. Gorpuzten ari da eta errealitatea bihurtzen. Mitorik ateratakoa hala ere, ez du antzik gurearekin. Desitxuraturik, guttiturik, trenkatutik dago. Mito zerutierra ematen du berriro, etsaien mitoa, burrukalariak hiltzen eta gartzelaretzen dituen, gazteria torturatzen eta ezabatu nahi duena. Boteretsuen mitoa ez da nolana akabatzen, zutik dihardu, lehen bezala. Ez dute garaitu baina zutik dihardute. Ez dago herririk, beren lege eta arau zapaltzaile guztiak kulturaren eta bizitzan dauzkagu; eskoletan, familian, afektibitatean, hezkuntzan, ekonomian, produkzioan... Euskadiko herria iritsi da bide gurutzatu horretara eta bertan dagoen harreseak, berak uste zuen baino azkoz zailagoa ditu iragatea. Sakrifizio gehiago, ahalegin gehiago, alaitasun handiago, poz handiago eta zergatik ez, lasaitasun handiago eskatzen dugu.

Bai Savater, lasaitasun-arazo horretan zurekin nago baina ez dut uste zure helburuak eta herriarenak antzekoak direnik. Zure helburuak eta gurinaz eta marmeladaz gosaltzen duten zu bezalako intelektualak ez datoz bat herriarekin. Zuek ez duzue sinesmen mitoez.

Ba liteke egunen batetan, iraultzaren mutikoa zinela eta gurinaz eta marmeladaz gosaltzen zenuen egun berean, “zure” errepresio berezietz konturatu izan zinela... Francoren garaia, bizimodua ez zegoen gaur bezainbat askatuxe... ez zegoen belarririk, eta larrua jotzen zailago zen. Horregatik, —espektroan ikusmen zabal eta sakona izanik zuen errepresio guztiak, politiko eta ekonomikoak baino psikikoak zirela erreparatu zenueten. Konprenitzekoa da beraz zuek egin duzuen desmitifikazioa; adimen zorrotzen ondorioztat har daiteke. Zoritxarrez, iragan mendeko intelektualen gisa, oker berdina egin duzue, gizakiok mekanikoki bereiztuz. Psikea metafisika hutsa bilakatu zaizue baina psikeak ere herrien eta pertsonen zapalkuntza kolektiboa gera dadila eskatzen digu mitoek sor dezaketen indar irmoarekin. Zuek —nahiz eta sinestu ez— ez dituzue mitoak alde batetara utzi, mitoak soilik trukatu dituzue. “la enriquecedora complejidad universal, el relajamiento de las costumbres, el desconfiar de los santos si van armados, eta beste guztiok ez dituzue mitoz hartzen eta nire ustez, zure proposamenok zuen beste mito horien oinarri batzuek ez dira.

Lasaitasuna proposatzen duzu sendagarritzat eta lasaitasun hori, indiferentzia, pasotismoa, frustrazioa eta animalkeria daitezke eta ba dira ere. Zure mitoa, —eta honetan ongi badakizu— Honey-Bull-en eta Martin Villaren mitoen antza dute. Gure mitoa ogirik eta mantequillarik gabe eginda dago nahiz eta guretako txapel gorri batzuk XIX. mendeko gazteria zarrapastrotzu eta gosetien mozorroaz jantzi eta publizitatea egin. Beharbada, eska guretzat delakoei lasaitasun handiagoa, baina desdramatizatorik ez, guretako asko atxilotu eta hilik baitago. Ezin desdramatiza ditzakegu Hamlet eta Otelo absurdu barregarria eginen baikenuke. Berdin gertatuko litzaizuke zure mitoi, berdin zapaltzaileei beren mitoa desmitifikatuko balute. Baina zergatik ez lasaitasuna eskatzea? Bai, beharrezkoa dela pentsatzen dut, etsaia hobe deuseztatzeke. Lasaitasuna, herriaren etsaia gure eskupeten begi puntuan hotz-hotzean akabatzeke.

T. Trifol



# EUSKAL AZENTUAZIOARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Euskara lantzerakoan garrantzia eman zaie sintaxiari, ahozkerari, morfologiari eta abareri, ondo txikia halabaina azentuazioari. Horrela, erraz kontura gaitezke, —nator menditik, —etzean saude, —makilarekin jo diot,

eta horrelakoak txartzat ematen ditugula, baina ondoko hau berriz,

—gúk bukátu dúgu góiz honétan—

txartzat eman ez ezik, erabili egiten dugu askotan.

Euskara euskaldunek beren harremanetan darabiltzen hizkuntza denez, hori ez da euskara —euskara "ona" behintzat—.

Horrelako egoeraz bukatzen hasteko, hemen zenbait proposamen botako ditugu. Berau egiterakoan, Euskal Herri ia guztiko euskarak entzun eta aztertuak ditugu, eta nahiko frogatuztat ematen dugu ondokoa. Orain bai, garbi dugu Euskaltzaindiak egin beharreko lana dela, entonazioa aztertzea, lan izugarria baita, eta "afizionatuen" ahalmementatik at gertzen dena. Eta berau probetxatu nahi dugu, Euskaltzaindia nolabait erantzutera behartzeko: uste dugu, epe laburrenean nolabaiteko estudio bat egin behar duela, arau nagusiak behintzat finkatuz.

Are eta derrigorrezkoagoa deritzogu honi, beronetaz ezer eginik ez dagoelako, eta gainera euskara kultotzat sartutako zerbait delako. Horrela, goikoari darraion azentuazioa bakarrik entzuten da, euskara "kultoa" omen dagoen lekuetan, gaueskola, ikastola, hitzaldi eta abarretan.

Besterik gabe, hona hemen proposamenak:

1.- Linea nagusizat hartzen dugu, euskaraz hitzek azentu agundu bat dutela,

beste zenbait azentu eduki badezakete ere.

2.- Bi silabatako hitzek azentu agudua dutelarik, aditz laguntzaileek eta izenlagun erakusleek bakarrik azentu hori dute.

3.- Hiru silabatako hitzetan, bi jokabide daude: 2. eta 3. silaba azentuatzea, edota lehen eta 3.a.

Ba dirudi 1. eta 3.a duten kasuetan, lehen silabako azentu hori zerbaitek behartua dela. Erdaraz azentu hori duen hitza izan daiteke —áutoa—, edo bi silabatakoa izanik, azentuhiru silabatan mantentzen duena —hěldu, hěldutá—. Bi silabakoetan 2. azentua noiz agertzen den ez dakigu —egón, irtén—.

4.- Hitz luzeagotan, ba dirudi nagusia dela, 2.a eta azkena azentuatzea, nahiz eta leku batzutan, eta jeneralean kasu batzutan, 1. eta azkena azentuatzen diren —pelikulá/pélikulá; beti krónikatán.

Hau guztia aldatua izan daiteke, esaldiaren barruko ingurunea dela eta, esaldiari zentzu berezi bat eman nahi zaiolako... Gainera, beste mila gorabehera daude —adibidez, bi esanahi desberdin dituen hitz berberaren azentuazio desberdina, eta abar—, guk azter ezin ditzakegunak.


Ba dirudi, halaber, beronek Zuberoan ez duela baliorik. Baina gure euskara saskultoa ez da Zuberoerarekiko hurbilketa, baizik eta erdal kutsaduraz gertatutako euskara arrotza.

Azkenez, esan nahi dugu, euskaldun zaharrari euskara "kultoa" arrotza egiten bazaio, maila handi bateta, entonazio maltzur horregatik dela.

Hona hemen, bukatzeko, adibidezerrenda bat:

TXARTO	ERA ZUZEN POSIBLEA
géuk bukátu dúgu góiz honétan	gékuk bukátú dugú góiz hónétán
hónak ásko dáki; béste hórrek ordéa, ézer gútxi ikási dú	hónék askó dakí, besté horrék ordéá, ezér gutxí ikási dú.
kláséra etórtzen denéan, órdu érdi bát emáten dú bidían	kláserá etórtzén déneán, ordú érdí bát emátén dú bidíáián.
Káixo, mútil, zélan zágoz Bílbó aldeán?	Kaixó, mutíl, zélán zagóz Bílbó aldeán?
políta égin didázu, ( )! Holáko kólpe izugarriá emán...	polítá egín didázú, geró! Holáko kólpé izugarriá emán...
nerónék eramángo záitút, gauéan denbóra dáukat éta.	nerónék erámangó zaitút, gauéán denbórá daukát étá.

Bilbo zaharreko euskarazko irakasleak.



## "ANAITASUNA"ko jaunak

Irakurri det zuen idaz lana, beti pozoituta; oraintxe lertzeko zorian zaudete; zuentzako "Prentsa Euskaraz", "ANAITASUNA", "ARGIA" ta "JAKIN" bakarrak dira; neretzako xoxik ere ez dute balio iru oiek; E.T.A.comunista iltzen danean baten ilko dira iru paper zikiñ oiek, dirurik jasoko ez dezutelako ildakoen eskutik.

"HERRIA" euzkera utzean ez da etortzen, prantzezes ere bai pixka bat; "jakin" berriz praile ta cura progre-marxisten batzuen zikinkerri bat da eta "Anaitasuna" berriz ifork baño obeto dakizutenez euzkeraz ez da etortzen baizik ehuskaranto zikin batean.

"Goiz Argi" k bere itxura apalean bakarrik zuen iru oiek batuta baño iru aldiz arpidedun geiago dauzka ta au ondo aditu E.T.A. koek ez diotexentimorik ere ematen, ongi joketzen duenak diru zikin lapurtua berarik ez du.

Ta zer diozute "Saski-Naski" ren gatik?... ori da liburuxka eder eta mamitsua, batere politikarik gabe ta euzkera jatorra ta jakingarria, orri txapela kendu bear zaio.

Ikusi zenduten Okendo kaleko konbentu ko mumubizerdunak nola eskuak garbitu zituzten "zeruko ARGIA"ri buruz erreak praile gazteari botiaz, zuen artean ere frailazo asko daude,... Berriatua, Azurmendi, Vilanaste, Torrealday eta abar, praile "progresistas" sin Dios tarrak; zai gaude bizardun sin Dios tarrak egin zutena zuek "prantziskotarrak" noiz egiten dezuten.

Orain "zeruko" izena kendu ta "ARGIA"... ¿nori lapurtu diote izen au?... nik badakit zeñi. Onek lengo leptotik dauka burua naiz ta axaletik beste arpegi bat azaldu, bizitza laburra itxaro zaio oni ere. E.T.A. iltzean batean "ARGIA" itzaliko da, ta onen "Protectoreak" ostatulari, jatetxelari, ta chocolatero ta "PASTELERO"ak beren eginkisunetara joango dira ta obeto joango zaiote.

Oarra: zalantzari gabe ziur nago lerro auek ez dituzutela argitaratuko.

Donostian- Mariano Zuaznabar



# BESTEAK

Hoy ese problema del IRREDENTISMO por la incorporación de Navarra está planteado de manera explosiva, alimentado por una serie de tópicos ideológicos y fomentado por intereses políticos contrapuestos:

— Domina sobre todos ellos el tópico cesarista de la UNIDAD NACIONAL en su doble vertiente: la del españolismo reaccionario que se cimenta sobre la sacrosanta UNIDAD NACIONAL española y que sueña con utilizar a Navarra para una nueva cruzada neofranquista; y la del españolismo revolucionario que se sirve de la irrenunciable UNIDAD NACIONAL vasca para desarrollar el «marco revolucionario» vasco como parte esencial de la estrategia marxista-leninista dirigida al implantar la dictadura del proletariado, no sólo en Euzkadi, sino en todo el Estado español.

— Para ambas tendencias el concepto de UNIDAD NACIONAL es una especie de imperativo categórico que se impone por la fuerza. A él se opone el concepto democrático y anticesarista de UNION de hombres y pueblos, único creador de la VERDADERA SOLIDARIDAD NACIONAL DE LA LIBERTAD.

— Junto al concepto abstracto de UNIDAD que hemos dejado expuesto, se nos impone la idea de INCORPORACION o INTEGRACION, cuando la personalidad vasca de Navarra, que por ser precisamente vasca es ya Vasconia, Euzkadi o Euskalerrria, o como quiera denominarse, REQUIERE QUE NO TENGA QUE INCORPORARSE A NADA Y EXIGE RECUPERAR SU ARREBATADA LIBERTAD y, a través de ella, DECIDIR LAS FORMAS DE SOLIDARIDAD QUE ESTIME PERTINENTES.

## Grupos de Estudios Políticos de Goiz-argi

Creo que en los ámbitos de ETA hay un declive del componente abertzale y eso dificulta enormemente un plan de recuperación futura. Hemos tendido la mano muchas veces y muchas veces ha estado en el aire, solitaria, esperando un apretón que hubiese sido definitivo para la aceleración del funcionamiento de este país. Una Euzkadi ensangrentada no nos

beneficie a nadie y nos aparta más de Navarra, de mi Navarra, de nuestra Navarra. CREEME, PIENSO, Y MUCHO, EN UNA CONFRONTACION, INEVITABLE ENTRE VASCOS POR ESTAS HERIDAS ABIERTAS Y QUE MANAN TANTO PUS.

Labayen en su primer turno se dedicó a señalar una serie de vaguedades inconcretas que en modo alguno satisfacieron a la oposición, y que además se hizo más incomprensible por la pésima traducción simultánea con la que fue obsequiada la prensa. En una posterior intervención, en castellano, dijo que cuando sea conocido el personal con que se dotará a la futura televisión, se creará un ente público con unos estatutos similares a los actuales de RTVE-EGIN.

## Carlos Garaikoetxea-ren Gabonetarako desioak

“Quien no les oye gritar por aquí INDEPENDENTZIA?. Y muchos, cuando la oyen, creen (lo he comprobado muchas veces) que gritan en favor de la independencia de Euzkadi. Y NO HAY TAL. Para ellos “independentzia” quiere decir Euzkadi comunista, provincia de España también comunista. Identifican “independencia” con comunismo. Para ellos donde no hay comunismo e imposición de su partido, no hay independencia. Los comunistas de Euzkadi son hermanos gemelos de los de todas partes.

EUZKADI (EAJ-ren aldizkaria).

Biarco

“El proceso de negociación de transferencias lleva a la destrucción del Estado”... “Pero en el PNV hay cantidad de gente sensata que no están de acuerdo en cómo se están llevando las cosas. En el PNV hay dos líderes, Garaikoetxea y Arzallus”

Txiki Benegas.

“Pero el éxito de la gestión revolucionaria de ETA, arrastrar al Pueblo Vasco a la cruzada revolucionaria española, de-

pende en gran medida de las posiciones del PNV. Su debilitamiento ante los ojos de nuestro pueblo, es la condición para el éxito de la tarea que se propone. De ahí que el partido nacionalista vasco sea el gran enemigo a batir, por parte de quienes están empeñados en la tarea revolucionaria, de implantar a toda costa la dictadura del proletariado en Madrid. Esta perspectiva ofrece nuevas luces al problema de la pacificación del país, así como nuevos contenidos a la línea partidaria de la reconciliación. “Jon Mimenza, Goiz-Argi,n (Euskal-Aldizkaria)”.

El lehendakari Garaikoetxea aseguró al presidente Suarez que el objetivo de su política no era la independencia. (EFE).


“El Pueblo Vasco estaba deseando en gran manera la visita de su presidente Adolfo Suarez, eso es lo que hemos podido deducir de los diversos contactos mantenidos aquí”. Rosa Posada, Estatu idazkaria.

“Juan Tomas de Salas... se ha ido a Estrasburgo a extender la llama indignada y virtuosa del antiterrorismo. Fortuitamente ha llegado a nosotros su ponencia, que publicamos en este número, con anotaciones al parecer de su propia mano. En ellas dice que la prensa favorable al terrorismo sigue vigente hoy en Euzkadi, Deia, Egin... hemos acabado concluyendo que lo que mas le duele del “terrorismo” son los 226.000 lectores de EGIN. Mientras tanto “Diario 16” con su último regalito oficial del gobierno de 25 millones y según la misma fuente disfruta de la modesta cifra de 66.000 lectores antiterroristas” Punto Y Hora-ren artikuluburua.

Hendayako “Bar Hendayais”-en egin-dako atentatuari buruz “Le tir n’était pas si aveugle que ça: quelques instants avant se tenait dans le bar une réunion des réfugiés.” FR3 telebista katea.



1970/1979 Una  
década más  
de entrega  
a Vizcaya.



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA



# Estamos a su servicio para que Gane Más.



## Abono de sueldos

El Servicio de Abono de Sueldos consiste en cobrar su sueldo a través de la Caja, evitando riesgos, disponiendo de la máxima comodidad en los cobros y pagos que tenga que efectuar, y disfrutando de muchas ventajas.

## Soldaten Abonua

Soldaten Abonu-Zerbitzua honetan datza, alegia zeure soldata Kutxaren bidez kobratzen duzula, honela arriskuak bazterten dituzularik, egin behar dituzun kobrantza eta ordainketetan erosotasunik haundiena duzularik, eta ondoko abantaila hauetatuz baliatzen zarelarik.

## 111 Oficinas en Guipúzcoa

Primera ventaja: la comodidad que le supone poder resolver sus gestiones en cualquiera de nuestras sucursales.

## 111 Bulego Gipuzkoan

Gure sukurtsaletatik edozeinetan zure gestioak erabaki ahal izateak dakarkizun erosotasuna.

## La red de Cajeros Automáticos más amplia de la provincia

Para realizar ingresos, retirar fondos, pedir talonario, solicitar extracto de cuenta, etc... tanto de día como de noche.

## Probintziako Kutxazain Automatikoaren sarerik hedatuena

Egunez nahiz gauez, sarrerak egin, fondoak atera, taloi-liburuskak eskatu, kontu-laburpena eskatu etab. egiteko.

## Puntual información de sus operaciones

Zure eragiketaren orduko informazioa

## Rapidez y seguridad

## Bizkortasuna eta segurtasuna

## Domiciliación de Ingresos y Pagos

En la Cuenta de Abono de Sueldos podrá domiciliar todos sus cobros: haberes, ingresos por transferencia, prestaciones del INSS e INSALUD tales como pensiones, accidentes, desempleo, etc... y efectuar cómodamente todos sus pagos: recibos de luz, agua, teléfono, gas, colegios, sociedades, contribuciones, impuestos, etcétera.

## Sarrera eta Ordainketen helbideratzea

Soldaten Abonu-kontuan helbidera ditzakezu zeure kobrantza guztiak, (hartzekoak, transferentzia bidezko sarrerak, INSS eta INSALUDen laguntzak, adibidez pentsioak, istripuak, desahalea, etab.; halaber, erosotasun guztiz egin ditzakezu zeure ordainketa guztiak, (argi, ur, telefono, gas, ikastetxe, sozietate, kontribuzio, zerga, etabarren ordain-agiriak).

## Tarjeta 6.000

Con la Tarjeta 6.000 podrá obtener dinero en efectivo en las 8.000 oficinas de las Cajas de Ahorros Confederadas y pagar sus compras en más de 300.000 establecimientos de todo tipo.

## 6.000 Txartela

6.000 Txartelaren bidez Aurrezki Kutxa Konfederatuetako 8.000 bulegotan dirua atera eta zeure erosketak 300.000 establezimendu baino gehiagotan ordaintzeko modua daukazu.

## Auto 6.000

Para adquirir carburante y pagar otras prestaciones para su vehículo en cualquier estación de servicio, talleres, garajes, etc...

## 6.000 Autoa

6.000 Autoa taloien bidez, zeure ibilgailuarentzat erregaia eta beste zerbitzuak lor ditzakezu.

## Credito Automático

Por el hecho de cobrar su sueldo a través de la Caja podrá obtener en el acto un CREDITO AUTOMATICO y acceder a cualquiera de los restantes créditos de la Caja.

## Kreditu Automatikoa

Zeure soldata Kutxaren bidez kobratzeagatik, horregatik bakarrik KREDITU AUTOMATIKO bat berehala eta Kutxaren beste kreditu edozein lor ditzakezu.

## AHORROCAP80

## Ahorrocap

Mensualmente, sorteos exclusivos para quienes utilizan el Servicio de Abono de Sueldos.

## Ahorrocap

Soldaten Abonu-Zerbitzua darabilentzat bakarrik egingo diren hileroko zozketak.

## Obras Sociales y culturales

Instituto Oncológico, ASPACE —Servicio de diagnóstico e investigación de la parálisis cerebral—, Premios literarios para especialidades en euskera y castellano, Certámenes de pintura y escultura, ciclos de conferencias, proyecciones, etc.

Y para los jóvenes, nuestro Club

Juvenil, las Colonias Infantiles de Goyeneche y Ribavellosa, la Oficina de Jóvenes, Becas de estudio y la Ciudad Laboral Don Bosco, el Centro Cultural de Nazaret, los E.U.T.G., etc. donde se imparten estudios para su formación profesional o universitaria.

## Kultur eta Gizarte-Ekintzak

Instituto onkológikoa, Buru-elbarrietako ASPACEko diagnostikoko eta ikerketa-zerbitzua, Literatur Sariketarak sail berezitan euskaraz eta gaztelaniaz, Pintura eta eskultura-lehiaketak, hitzaldien, emankizunen ikastaroak, etab.

Eta zure seme-alabentzat, Gaztetxoan Elkarte, Goienetxe eta Ribavellosa-ko Haur-udalekuak, Gazteen Elkarte, ikasketa-beka eta heziketa profesional edo unibertsitate-mailako ikasketak egingo diren "Don Bosco" Hiri Laborala, Nazaret Zentro Kulturala, G.U.T.I. etab. dau



## SERVICIO DE ABONO DE SUELDOS



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA  
GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA